
ITZAK

URDAIBAIKO KULTUR PAISAIA

Busturia • Murueta • Forua • Kortezubi • Gautegiz Arteaga



Josu Narbarte – Eneko Iriarte

ITZAK

Urdaibaiko euskaran, ihiak dauden tokia; padura. Itsasoaren joan-etorrien menpe dauden ekosistema bereziak dira, itsasgoran urak estaltzen ditu, eta itsasbeheran agerian gelditzen dira. Eskualdeko gizarteak ezagutzan eta zaintzan oinarritutako harremana garatu du espazio horiekin, balio handiko paisaia kulturalei forma emanez.

Argitaratzailea

Sociedad de Ciencias Aranzadi Zientzia Elkartea. Donostia / San Sebastián.

Egileak

Josu Narbarte, Eneko Iriarte.

Kartografia

Josu Narbarte.

Irudiak

Josu Narbarte; Aritz Diez Oronoz; Anaïs Mitxelena; Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa; Euskadiko Artxibo Historikoa; Busturiko Udala; Foruko Udala; Gautegiz Arteagako Udala; Kortezubiko Udala; Muruetako Udala; Gipuzkoako Artxibategi Orokorra; Madrilgo Erret Lorategi Botanikoa; Wikimedia Commons.

Lan hau Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zentroak diruz lagundutako *Erriberak* ikerlanaren emaitzetako bat da, Kultur Ondarearen Ikerketa dirulaguntza-programaren bidez.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Gema Uriarte, Jon Iturribarria, Joserra Diez, Nagore Zobaran, Aritz Díez Oronoz, José Ángel Fernández, Ander Rodríguez, Laura Domán, Anaïs Mitxelena, Iñaki Sanz Azkue eta beste hainbati, argitalpen hau aurrera atera ahal izateko eskaini diguten laguntza guztiagatik.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. **www.aranzadi.eus**

Egilea
Josu Narbarte eta Eneko Iriarte

Maketazioa
TamTam S.L.

Imprimatzen du
Gráficas Iratxe

ISBN 978-84-17713-84-3

L.G. D 00422-2023

Sustatzaileak:

Busturiko Udala · Muruetako Udala · Foruko Udala · Kortezubiko Udala · Gautegiz Arteaga Udala

Laguntzaileak

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea · GIPyPAC Grupo de Investigación en Patrimonio y Paisajes Culturales

ITZAK

Urdaibaiko kultur paisaia

BUSTURIA • MURUETA • FORUA • KORTEZUBI • GAUTEGIZ ARTEAGA

Josu Narbarte – Eneko Iriarte

2023

aranzadi
zientzia elkartea

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA 10

2. PAISAIA, ONDAREA, GIZARTEA 14

2.1. ZER DA PAISAIA? 17

2.2. PAISAIAREN ARKEOLOGIA 18

2.3. LAN METODOLOGIA 19

3. URDAIBAIKO PAISAIA 22

3.1. IKUSPEGI OROKORRA 24

3.2. BEGIRADA HISTORIKO BAT 26

3.2.1. Protohistoria eta erromanizazioa – Lehen aztarnak 26

3.2.2. Erdi Aroa – Herrixkatik elizatera 28

3.2.3. Aro Modernoa – Baserriaren hedapena eta artoaren iraultza 32

4. ITZAK: ESPAZIO BEREZI BAT 42

4.1. PADURAK ETA MAREA ARTEKO EREMUAK 44

4.2. TOPONIMIA KONTUAK 47

4.3. ERABILERA ESTENTSIBOAK 47

4.4. ITSAS ERROTAK 49

5. PAISAIA BERRI BAT: POLDERRAK 60

5.1. ZER DA POLDER BAT? 62

5.2. POLDERRAK URDAIBAIN 66

5.2.1. Herri lurren desamortizazioa 66

5.2.2. Trenbidea eta Erriobarria 68

5.2.3. Itza berrien kudeaketa 71

5.3. DESPOLDERIZAZIOA 73

6. BUSTURIA 76
6.1. DRAINATZE PROZESUA 78
6.2. KATASTRO ZAHARRA 80
6.3. ITZAK GAUR EGUN 90

7. MURUETA 92
7.1. DRAINATZE PROZESUA 94
7.2. KATASTRO ZAHARRA 96
7.3. ITZAK GAUR EGUN 104

8. FORUA 108
8.1. DRAINATZE PROZESUA 110
8.2. KATASTRO ZAHARRA 112
8.3. ITZAK GAUR EGUN 121

9. KORTEZUBI 124
9.1. DRAINATZE PROZESUA 126
9.2. KATASTRO ZAHARRA 127
9.3. ITZAK GAUR EGUN 136

10. GAUTEGIZ ARTEAGA 138
10.1. DRAINATZE PROZESUA 140
10.2. KATASTRO ZAHARRA 142
10.3. ITZAK GAUR EGUN 155

11. URDAIBAI, PAISAIA ETA ONDAREA 160

12. BIBLIOGRAFIA - TOKI IZENDEGIA - PERTSONA IZENDEGIA 164

13. ERASKINA 176

01

Aurkezpena

288
291
252
352
315
356
277a
266
251
351
276
253
250
354
263
249
a
350a
354
255a
b
341a
342
256
340
342
258a
257a
b
247a

Urdaibai inguruko herrietan bizi garenontzat, eguneroko bizitzaren parte dira itsasadarra eta bere paisaia: ur gaziak eta gezak, hareatzak, mareen erritmoan urez estaltzen edo agerian gelditzen diren padurak. Adin bat bete dugunok edo inguruan senitarteko helduagoak dauzkagunok, gainera, ondo dakigu paisaia hori asko aldatu dela azken hamarkadetan. Orain padurak dauden tokietan nekazaritza eremu aberatsak egon zirela. Eskualdeko memoria kolektiboan gordeta gelditu dira eremu horiei lotutako hitz batzuk (*itzak* edo *itsasoak, munak* edo *lubanak*), gure arbasoek inguru zail bati egokitzeko egindako lanaren eta garatutako ezagutzaren lekuko.

Bizimodu hura desagertzen joan da ordea, gizarte garaikideak ordezkatuta. Gaur egun oso gutxi dira Urdaibain lehen sektorean aritzen diren herritarrak, eta horrek bere eragina izan du paisaiaren itxuran. Baserriak eta soloak abandonatzen joan dira, eta haien tokian hezeguneetako jatorrizko ekosistemak leheneratu dira; bereziki, Biosferaren Erreserba eta Natura 2000 sareko Babes Bereziko Eremua izendatu ondoren. Apustu horren onurak nabarmenak dira bioaniztasunari nahiz ingurumenaren kalitateari dagokionez. Baina, aldi berean, iraganeko paisaia horien aztarnak higatzen eta haien memoria ahazten joan dira, gure kultur ondarearen zati bat betiko galduz.

Historia hori berreraikitzea izan zen, hain zuzen ere, 2020. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak burutu zuten *Erriberak* ikerketa-proiektuaren helburua, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zentroak lagunduta. Lan emankorra izan zen, tokiko gizartearen eta bere ingurumenaren arteko elkar-eraginak berreraikitzeko aukera eman zuena. Emaitza horietatik abiatuta, itsasadarraren inguruko bost udalok Busturia, Murueta, Forua, Kortezubi eta Gautegiz Arteaga indarrak batzeko beharra ikusi genuen, Urdaibaiko kultur paisaiari lotutako ondare materiala eta immateriala jaso eta herritarren esku uzteko.

Ekimen kolektibo horren emaitza da esku artean duzun liburua. Gaur egun ikusten dugun paisaia hobeto ulertzen laguntzeko ez ezik, balio dezala beren lanarekin forma eman zioten eta belaunaldiz belaunaldi harekiko maitasuna transmititu ziguten emakumeen eta gizonen izena eta izana aitortzeko ere.



Mikel Magunazelaia Pinaga
Foruko alkatea
1

Juan Felix Naberan Ozamiz
Gautegiz Arteagako alkatea
2

Karmele Enbeita Ozamiz
Kortezubiko alkatea
3

Aitor Aretxaga Telletxea
Busturiko alkatea
4

Julen Karrion Lamikiz
Muruetako alkatea
5

02

Paisaia, ondarea, gizartea



2.1. ZER DA PAISAIA?
2.2. PAISAIAREN ARKEOLOGIA
2.3. LAN METODOLOGIA

Liburu honek Urdaibaiko paisaia du aztergai, bizirik dagoen kultur ondare bezala ulertuta. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak 2019. urteaz geroztik egindako lanak jasotzen dira bertan, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zentroak lagunduta. Lan horien emaitzak ezagutzera ematea ez ezik, gizartean paisaiaren zaintzari buruzko hausnarketa zabaltzea ere izan da liburuaren helburua; kultur ondarea, azken buruan, gizartearen eta ingurumenaren arteko harreman historikoak ulertzen eta geroa pentsatzen laguntzeko gaitasuna duen tresna delakoan.

Ikerketa Urdaibaiko itsasadarraren ikuspegi zabal batean oinarritu da, paisaiaren bilakaera historikoa aztertzeko. Testuinguru horren baitan, *itzak* izeneko paisaia-unitate bereizgarria hartu da aztergai, bi arrazoirengatik. Alde batetik, orain arte oso gutxi ikertu delako paisaia-mota hori, lurralde mailan eragin handia izan duen arren. Beste aldetik, egun itza gehienak desagertuta edo desagertze-prozesuan daudelako, padura-ekosistemen leheneratze planifikatuaren ondorioz. Hala, analisia itsasadarraren erdigunea osatzen duten bost udalerrietan fokatu da batik bat: Busturia, Murueta, Forua, Kortezubi eta Gautegiz Arteaga, hurrenez hurren.



▲ Urdaibaiko itsasadarraren ikuspegi orokorra.

2.1. ZER DA PAISAIA?

Paisaiaren nozioa nonahi agertzen da gaur egun: literaturan, artean, hirigintzan, soziologian, turismoan, eta beste hainbat esparrutan. Hala ere, ez da erraza hitzaren esanahia zehaztea, alderdi desberdin ugari ukitzen baititu: lurraldeko elementu naturalak eta gizakiak eraikitakoak, espazioa ulertzeko modua – leku-izenak, gune jakin batzuei ematen zaien garrantzia sinbolikoa, jabetza-auziak –, baita memoriari lotutako hainbat alderdi ere.

Definizio horiek guztiak baliagarriak dira, baina nola uztartu hain elementu desberdinak? Nola aztertu alderdi horiek guztiak ikuspegi bakarrean?

Liburu honetan Élisée Reclus, Geografia Sozialaren sortzaileak emandako definizioa hartuko dugu abiapuntu. Harentzat, *lanak moldatutako* eta *kulturak eraldatutako natura* da paisaia, eta bere bilakaeran hertsiki loturik daude ingurugiroa eta giza aldagaiak (Reclus, 1866).

Izan ere, mendeen joanean gizakia planetako bazter guztietara egokitzeko gai izan da, tokian tokiko ezaugarrien jakintza sakona garatuz eta bere beharretara moldatzeko lanak modu kolektiboan gauzatuz. Horrela, erliebea eraldatu du, ibaiak eta errekak desbideratu, kosta-lerroak aldatu, basoak eta soroak antolatu, animaliak etxekotu, landare-espezie egokienak aukeratu – jateko, janzteko, tresnak egiteko nahiz etxeak eraikitzeko – eta barietate berriak sortu; eta, etengabeko aldaketan dagoen obra horri guztiari zentzua emateko, izenak eta kontzeptuak ere asmatu ditu, inguru bakoitzean desberdinak eta bakarrak. Aldi berean naturalak eta kulturalak diren ekosistema horien emaitza dira egun ikusten ditugun paisaiak.

Euskal Herrian, paisaiaren balio kulturalaren inguruko hausnarketak presente daude dagoeneko XIX. mendeko literaturan, Txomin Agirreren *Kresala*n eta *Garoa*n, adibidez. XX. mendearen lehen hamarkadetan, abertzaletasunaren garapenak bultzada eman zien ideia horiei, paisaia tradizionalari balio politiko bat erantsiz – 1921an sortutako Mendigoxale Batza da, ziur aski, horren adibiderik argiena. Garai berean, Telesforo Aranzadik, Joxemiel Barandiaranek eta Enrike Egurenek osatutako taldeak arkeologia eta etnografia ikerketa-ibilbide oparo bat abiarazi zuten – 1936ko estatu-kolpearen ondoren etenda gelditu zen arren, 1947tik aurrera Aranzadi Zientzia Elkarteak jarraipena emango zion horri. Aurrekari horiek azaltzen dute, zalantzarik gabe, Euskal Herrian kultur paisaiaren zaintzak eta babesak pizten duen ahobatezko adostasuna.

Ideia horretan oinarrituta, UNESCOk 1999an txertatu zuen 'kultur paisaia' nozioa Munduko Ondarearen Konbentzioan. "Gizartearen eta bere inguru naturalaren arteko elkar-eraginen adierazpen ugari" biltzen ditu, eta hiru multzotan sailkatzen dira:

- *Paisaia diseinatuak*. Irizpide estetiko jakin batzuen arabera gizakiak nahita sortuak.
- *Paisaia organikoak*. Naturak ezarritako muga eta aukeren baitan, eragile sozial, eko-

nomiko, administratibo eta erlijiosoen eraginpean garatuak. Zenbait kasutan, beren bilakaera historikoa bukatuta, *paisaia fosil* gisa gelditzen dira. Bertzeetan, paisaiaren bilakaera bizirik dago oraindik, eta funtzio sozial bat betetzen du egungo gizartearen baitan.

- *Lotura-paisaiak*. Elementu natural jakin bati lotutako balio erlijioso, artistiko edo kulturala dute oinarri.

2000. urtean, Paisaiaren Europako Karta sinatu zen Florentzian. Naturaren eta gizartearen arteko lotura berretsi ez ezik, itun horrek kontinenteko kultur paisaien aniztasuna du ardatz, ondare bizi hori ikertzeko eta babesteko beharra azpimarratuz.

Ildo berean doa 2019an onartutako Euskal Kultur Ondarearen Lege berria; lehen aldiz, paisaiaren ikuspegia txertatu da kultur ondarearen definizioan eta babesean, zeharkako ikuspegi baten bidez.

Baina ezin da ahantzi egun arte iritsi zaizkigun kultur paisaien defentsan protagonismo handiena nork izan duen: eguneroko lanarekin, oinordekotzan jasotako ondare hori maitatu, zaindu eta transmititu duten herritarrak – sarri, bizimodu garaikideak inposatutako oztopoak gainditzeko ahalegin handia eginez. Haiek ematen diote bizitza ondareari, gerora ere hala izaten jarrai dezan.

2.2. PAISAIAREN ARKEOLOGIA

Bere izaera materiala dela eta, arkeologiaren eskutik bideratu da Urdaibaiko kultur paisaiaren ikerketa. Metodo arkeologikoak iraganeko aztarnak aztertzen ditu, beren testuinguruan ezarriz arreta: garai desberdinetako elementuen gainjartzea, batzuen eta besteen arteko harremanak, baita ordutik jasan dituen eraldaketak ere.

Euskal Herrian, ibilbide luzea dago paisaiaren inguruko ikerketei dagokienez. Hiru ildo nagusi landu izan dira:

- ***Populamenduaren inguruko ikerketak.*** Ildo honek iraganeko elementu monumentalak – gazteluak, elizak, hilerriak – hartzen ditu aintzat, espazioaren okupazio historikoa aztertu eta herri-sareen mapa osatzeko helburuarekin. Bizkaian egindako ikerketek, adibidez, emaitza esanguratsuak eman dituzte VIII. mendetik aurrera herri-sarea nola eratu zen ulertzeko; baita zer bilakaera izan zuen gerora ere, XI. mendetik aurrera eman zen feudalizazioaren ondorioz – Erdi Aroaren amaieran elizateak sortu arte.

- ***Nekazaritzaren arkeologia.*** Joera honek herrien inguruan sortutako laborantza-eremuen azterketa du oinarri, paisaiaren izaera konplexua eta aldakorra azpimarratuz. Batik bat Araban garatu da, Erdi Aroko herri hustuen inguruan EHUko ikerlariek egin-

dako proiektuen bidez: terraza-sistemak dira nagusi, baina baita *sernak* bezalako espazio bereziak ere. Añanako gatz-haranaren kasua ere, ezaugarri bereziak izan arren, multzo honetan sailka liteke. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, mota honetako ikerketak herri bizietan zentratu dira. Lan horiek erakutsi dute paisaia etengabe aldatu zela Erdi Aroko herri-sareen sorreraren nahiz Aro Modernoko baserrien hedapenaren harira, nekazaritzako espazioen eraikuntzaren eta ustiaketaren bidez.

- ***Mendi arkeologia.*** Ildo hau mendialdeko baso eta larreen analisian zentratzen da, epe luzeko paisaia-aldaketak aztertzeko xedez. Aipagarriak dira Paueko eta Tolosako Unibertsitateek Zuberoan egindako lanak; baita EHUren zenbait ikerketa ere, Aizkorrin, Hernion edota Gorbeian. Lan horiek guztiek iraganeko aztarna ugari azaleratu baitituzte basogintzari eta artzaintzari lotuta: mintegiak, zuhaitz motzak, txondorrak, kortak, bordak eta abar.

2.3. LAN METODOLOGIA

Arestian esandakoak kontutan hartuta, Urdaibaiko itzetako kultur paisaien azterketa elementu desberdinen azterketan oinarritu da. Lehenik eta behin, lurraldearen antolaketa eta baliabide naturalen ustiaketa nola gauzatu diren aztertu da, Erdi Arotik XX. menderaino: bizitokiak non eta nola finkatu diren; espazioa nola zatitu den eta zer kudeaketa-eredu ezarri den unitate bakoitzean; baliabideen jabetza nolakoa izan den; eta abar. Bigarrenik, jarduera horiek ingurunean utzi duten aztarna aztertu da, bai alderdi fisikoan – erliebean, hidrografian, lurzoruetan – eta bai bioaniztasunaren aldetik.

Horretarako, informazio-iturri desberdinak landu dira:

- ***Iturri idatziak.*** Erdi Aroko iturriak oso urriak dira eta zatikatuta daude; monasterio jakin batzuetako artxiboetan kontserbatzen dira. Aro Modernotik, berriz, iturri dokumental aberatsak kontserbatzen dira. Bizkaiko Foru Artxiboa izan da kontsultatutako bilduma nagusia; atal Administratiboa, Judiziala eta Notariala, alde batetik, eta udal bakoitzeko funts historikoak, bestetik. Horrekin batera, Udal Artxiboetako erregistro administratiboak ere kontsultatu dira, katastro historikoak bereziki.

- ***Toponimia.*** Toki-izenak paisaiako elementu garrantzitsua dira, gizarte jakin batek bere inguruneaz eraikitzen duen irudia eta erreferentzia-sistema islatzen baitute. Bide horretan, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek argitaratutako Udal Mapa Toponimikoek xehetasun handiko datuak eskaintzen dituzte.

- ***Katastro zaharrak.*** Bizkaiko udalerri bakoitzaren katastro zaharrak XX. mendearen erdialdean osatu ziren, Espainiako Gobernuak 1941ean emandako agindu baten ondotik; 1949koak dira lehen lanak, eta zenbait eranskin izan ohi dituzte 1960ko eta 1980ko

hamarkaden artean. Dokumentu horiek oso informazio oparoa eskaintzen dute, lursail bakoitzaren kokapena eta mugak ez ezik, bere jabea, erabilera eta azalera ere aipatzen baitituzte. Gainera, itzen kasuan, gaur egun galduta dauden toponimo zaharrak identifikatzeko aukera ere ematen dute.

- ***Aireko argazkiak.*** GeoEuskadi datu espazialen azpiegituran jasotako erregistroek informazio aberatsa ematen dute XX. mende erdiaz geroztik lurraren estaldura nola aldatu den ezagutzeko. Lehen hegaldiak AEBko armadak egin zituen 1945-1946an eta 1956-1957an; horren ondoren beste hegaldi batzuk egin ziren 1977an, 1984an eta 1991ean; 2001az geroztik, Eusko Jaurlaritzak urtero ekoizten du erresoluzio handiko ortoargazki bat, aldaketarik txikienak ere identifikatzeko aukera eskainiz.

- ***Ahozko iturriak.*** Eskualdeko zenbait pertsona elkarrizketatu dira, erdi-egituratutako elkarrizketa metodoa erabiliz, paisaiaren inguruko informazio etnografikoa jasotzeko: espazio desberdinen pertzepzioa eta bakoitzari aitortutako balio sinbolikoa, baliabideen kudeaketa-praktikak, ezagutzen transmisioa, eta abar. Arreta berezia eskaini zaio, halaber, azken hamarkadetan izandako aldaketak dokumentatzeari.

- ***Miaketa arkeologikoak.*** Itsasadarraren hedadura osoan gauzatu dira. Bi datu-mota bildu dira: *lur-estaldurak* eta gizakiak sortutako *egiturak*. Datu horiek guztiak datu-base digital batean txertatu dira, erreferentziazko informazio geografikoarekin alderatzeko – erliebea, hidrografia, uholde-arriskua, katastroa, toponimia txikia, eta abar.

- ***Arkitektura azterketak.*** Euskal Kultur Ondarearen datu-baseak oinarri hartuta, eraikin historikoen kokapena eta arkitektura ezaugarriak aztertu dira, beren testuinguru historikoan kokatu eta paisaiako beste elementu batzuekin duten harremana zehazteko. Horretarako, euskal baserrien tipologiak zehaztu dituzten ikerketak hartu dira kontutan, baita azken urteetan egindako esku-hartze arkeologikoak ere.

Iturri horiek guztiak uztartuta, epe luzeko ikuspegi historiko bat garatzea izan da erronka, itzetako kultur paisaiaren formazioa eta bilakaera ulertzeko helburuarekin.

Urdaibaiko paisaia aniztasuna. ▶
Lehen planoan, marea arteko padurak; atzean herriguneak eta landazabalak; atzean, mendiak.



03

Urdaibaiko paisaia



3.1. IKUSPEGI OROKORRA
3.2. BEGIRADA HISTORIKO BAT

Atal honen helburu nagusia Urdaibaiko itsasadarraren ikuspegi historiko bat proposatzea da, gizakiaren eta ingurumenaren arteko elkar eraginek paisaia nola moldatu duten aztertuz, eta bilakaera horren aztarna material nagusiak aurkeztuz.

3.1. IKUSPEGI OROKORRA

Oka ibaia Muxikako Gorozika auzoan sortzen da, Oiz mendiaren iparreko magaletan. 132 km2-ko arro hidrografikoa drainatzen du, baina ibilbide laburra dauka: 17 km baino ez. Horietatik, 12 km-k Urdaibai izeneko itsasadarra eratzen dute, Sollube (684 m), Oiz (1026 m) eta Illuntzar (726 m) mendien artean.

Euskal kostako beste estuario batzuetan ez bezala, industrializazioaren eta urbanizazioaren hedapena oso mugatua izan da Urdaibain: estuarioaren barnealdean soilik eman da, Gernikako hirigunearen inguruan. Itsasadarraren erdialdeko sektorean kokaturiko bost udalerriek —Busturia, Murueta eta Forua ezkerraldean; Gautegiz Arteaga eta Kortezubi eskuinaldean— biztanleria-dentsitate txikia daukate, 4.000 biztanle inguru baino ez dituzte batzen denen artean. Hemen, paisaia tradizionala egoera onean kontserbatu da, hiru solairutan antolatuta: (1) itsasadarraren inguruan, padurak eta marea arteko eremuak; (2) inguruko mendi-magaletan, herriguneak, baserri isolatuak eta landazabalak; eta (3) mendialdeetan, artadiak eta bestelako basoak.

Kontserbazio horri esker, Urdaibai lehen mailako erreferentea bilakatu da Euskal Herriko paisaiaren eta ekosistemen babesari dagokionez. Bide horretan mugarria izan zen, zalantzarik gabe, 1984. urtean UNESCOk Biosferaren Erreserba gisa egindako aitorpena. Figura horren helburu nagusia bioaniztasunaren kontserbazioa da, baina baita eskualde mailako gizartearen eta ekonomiaren garapen jasangarria, ikerketa eta hezkuntza jarduerak ere. Beste mugarri garrantzitsu bat 1992an iritsi zen, itsasadarraren inguruko hezeguneak —943 hektarea guztira— Nazioarteko Garrantzidun Hezeguneen zerrendan sartu zirenean. Zerrenda hori Ramsarreko Hitzarmenak arautzen du, eta “hezeguneen kontserbazioa eta erabilera arrazionala” ditu helburu, tokiko, eskualdeko eta nazio mailako ekintzen bidez. Azkenik, Europar Batasunak sustaturiko Natura 2000 sarearen parte ere bada Urdaibai, Eusko Jaurlaritzaren 358/2013 dekretuaren bidez. Bertan, Babes Bereziko Eremu izendatzen dira Urdaibaiko sare hidrografikoa (ES2130006), alde batetik, eta hezeguneak (ES2130007), bestetik; baita Urdaibaiko itsasadarreko Hegaztien Babes Bereziko Eremua (ES00000144) ere.

HERRIA	BIZTANLERIA
BUSTURIA	1667
FORUA	910
GAUTEGIZ ARTEAGA	866
KORTEZUBI	441
MURUETA	327

URDAIBAIKO HERRIEN BIZTANLERIA 2022AN, HERRIZ HERRI.
Iturria: Eustat.

Urdaibai. ▶ Ikuspegi orokorra.


0
1 km

3.2. BEGIRADA HISTORIKO BAT

3.2.1. Protohistoria eta erromanizazioa – Lehen aztarnak

Urdaibaiko paisaia nola eraldatu den ezagutzeko, iturri arkeologikoetara jo beharra dago.

Historiaurrekoak dira giza okupazioaren zantzurik zaharrenak, Santimamiñe eta Kobaederra bezalako leizeetan hain zuzen ere (Barandiaran, 1976; Zapata et al., 1997; López Quintana & Guenaga Lizasu, 2007). K.a. VI. milurtekoan, Izotz Aroaren amaierak klima epelagoa ekarri zuen, eta eskualde osoan baso misto atlantiarrak zabaldu ziren (Iriarte et al., 2006). Garai berean, ikerlariek Neolitoari lotutako lehen nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak identifikatu dituzte, baita lehen eraikuntza monumentalak ere: megalitoak, Sollubeko trikuharri eta tumuluak adibidez (López Quintana, 2005).

Dena den, Protohistorian agertzen dira benetako giza okupazio egonkor baten aztarnak Urdaibai inguruan, kultur paisaia moduan defini daitezkeenak. Burdin Aroan, K.a. 800 ingurutik aurrera bereziki, garaieran kokatutako herri gotorrak nagusitu ziren, harresiz inguratuta eta inguruko lurraldearen gaineko kontrol ezin hobearekin: Kosnoaga (Gernika-Lumo) eta Arrola (Arratzu/Nabarniz). Azken horren alboan Gastiburu santutegia ere aipatu behar da; plaza batez eta harmailaz osatutako egitura da, eta bertan errito kolektiboak egingo zirela uste da. Aztarnategi hauetako material arkeologikoek gizarte konplexu baten irudia islatzen dute, nekazaritza eta abeltzaintza dibertsifikatu batekin eta beste herri batzuekiko elkartruke komertzialekin. Egitura gehienak K.a. IV.-III. mendeetan eraiki ziren.

Forua. Erromatar garaiko portuaren aztarnak. ▼



Egoera hori K.o. I. mendean hasi zen aldatzen, erromanizazioarekin. Euskal kosta inperioan txertatzean, urruneko eskualdeekiko merkataritza harremanak garatzeko aukera sortu zen, bertako salgaiak kanpora bidaliz eta kanpokoak inportatuz. Urdaibain, adibidez, garrantzia izan zuten Ereñoko kareharri gorria ustiatzeko harrobiak (Pereda, 2004). Horren adibide da, besteak beste, Gaitoka auzoko Triñe baselizan (Forua) aurkitutako inskripziodun lauza erromatarra, I.-II. mendeetakoa, material horretan egina. Pentsatzekoa da, beraz, material hori eskualdeko gizarteak esportatutakoen artean egon zela. Merkataritza itsaso bidez egiten zen batez ere eta, horretarako, portu azpiegitura berriak sortu ziren itsasadarraren inguruan: Portuondo (Mundaka/Sukarrieta) eta, batez ere, Forua (Martínez Salcedo & Unzueta, 1995; Martínez Salcedo, 2022). Azken horren euskarazko izena latinezko *forum*, 'merkatu' hitzetik eratorria da, eta argi uzten du zein funtziorekin sortu zen.

Kokaleku horiek I.-IV. mendeen artean garatu ziren eta, bertan egindako indusketek erakusten dutenez, guztiz integratuta egon ziren erromatar ekonomian

eta kulturan. Garapen horri lotuta, lurraldean sakabanatutako beste bizitoki batzuk ere agertu ziren, ziur aski nekazaritza eta abeltzaintza jarduerei lotuta; Almika (Bermeo) da horietako bat. Gainera, erromatar erritoen araberako nekropoliak ezagutzen dira, bai mendialdeetan —Tribisburu (Bermeo)— eta bai kobazuloetan —Santimamiñe eta Sagastigorri (Kortezubi), Foruko Atxa (Forua), eta abar. Bien bitartean, aurreko faseko herri gotorrek lurraldea antolatzeko gaitasuna galdu eta gainbeheran sartu ziren, guztiz desagertzeraino. Arrola, adibidez, okupatuta egon zen oraindik I. mendean zehar, eta erromatar jatorriko materialak ere agertu dira bertan; baina, II. mendetik aurrera, abandonatuta gelditu zen.

Erromanizazioak, beraz, aldaketa sakona ekarri zuen Urdaibaiko paisaiari dagokionez. Lehen aldiz, eskualdea itsasadarraren inguruan antolatzen hasi zen; haren inguruan zeuden herrigune nagusiak, eta bertatik igarotzen ziren trafiko komertzial gehienak. Aldaketak aldaketa, itsasadarraren zentraltasun hori mantendu egingo zen aurrerantzean, Urdaibaiko paisaiaren ezaugarri bereizgarriena bilakatzeraino.



3.2.2. Erdi Aroa – Herrixkatik elizatera

Europa mendebalde osoan bezala, Euskal Herriko herri-sareak Erdi Aroan egituratu ziren behin betiko. Bizkaian, zehazki, hogeita hamar urteko ikerketa sistematikoei esker erregistro arkeologiko aberatsa eratu da garai horretako aztarna materialei dagokienez (García Camino, 2002). Gainera, datu horiek iturri dokumentalekin aldera daitezke, eskualdearen irudi osatuagoa eskainiz.

Erromatar inperioa desagertu ondoren, VI.-VIII. mendeak garai iluna dira. Datu gutxi dago, baina badirudi aristokrazia gerlari baten inguruan antolatutako guneak izan zirela nagusi, modu autonomoan funtzionatzen zuten lurralde txikiak eratuz. VIII. mende bukaeran, aldiz, hazkunde fase bat hasi zen. Horren ondorioz, IX. eta XI. mendeen artean landa-komunitate berriak sortu ziren, han-hemen sakabanatutako herrixka egonkorrak eratuz eta inguruko paisaia eraldatuz. Komunitate horien identitate kolektiboa eliza txikien inguruan gorpuztu zen, partekatutako erritoen bidez —bataioa, eukaristia, hilobiratzea.

Urdaibai inguruan ere badaude garai honetako aztarnak. Islako San Lorentzo baselizan, adibidez, XI. mendeko leiho monolitiko bat kontserbatzen da burualdeko horman txertatuta. Antzeko leihoa zeukan Busturiako San Kristobal baselizak; Apraizerdikoa baserriaren fatxadan dago gaur egun. Bitxiagoa da Gaitokako Triñe baselizaren kasua; arestian esan bezala, atariko horman erromatar garaiko aldare bat aurkitu zen bertan, ziur aski Goi Erdi Aroan berrerabilia elizaren izaera sakratua nabarmentzeko.

Egoera XI. mendearen erdian hasi zen aldatzen. Garai horretan, baliabideak eta errentak esku gutxi batzuetan metatzeko



▲
Isla (Gautegiz Arteaga).
XI. mendeko leiho monolitikoa
San Lorentzo baselizan.

joera nabarmendu zen. Zenbait handikik beren ondasunen zati bat eliza jakin batzuei lotu, eta horien jabetza eskuratu zuten. Ondorioz, eliza horiek jasotzen zituzten errentak – herritarrek ordaindutako hamarrenak zein herri-lurretatik eratorritako etekinak – elite murritz baten esku gelditzen joan ziren, botere ekonomiko gero eta handiagoa bereganatuz. Horren erakusgarri, landa-elite berri horiek jauregiak eta dorretxeak eraiki zituzten, tokiko paisaian erreferente monumental berriak ezarriz. Hala sortu zen gizarte feudala.

Axpeko Santa Maria eliza, adibidez, Eneko Lopez eta Toda konde-kondesen jabetza zen, eta Busturiako barrutiko hamarrenak jasotzen zituen. Gainera, Pareziko eliza ere bere menpe zegoen. 1051. urtean, akordioa egin zuten Arabako apezpiku Gartziarekin, eta horri esker inguruko beste hainbat elizaren errentak erantsi zitzaizkion –Idoibaltzaga, Lumo, Gernika, Gorritiz, Bermeo, Mundaka eta Busturia–, eskualde mailako erreferentzia bilakatuz[1].

1070an, bikote berberak hainbat ondasun eman zizkion Donemiliagako monasterioari. Beste izen batzuen artean, agirian Bertandona (egun Berandoa), Catoica (Gaitoka) eta Gorritiz (Gordiz) agertzen dira, guztiak Forua inguruan. Gorritizen, zehazki, jauregi bat aipatzen da, eta zenbait ikerlarik Urdaibai dorretxeari dagokiola proposatu



▲
Forua. Urdaibai dorretxearen aurriak. Egilea: Juan San Martin (1959). Iturria: Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, JSM 1217.

[1] *Becerro Galicano Digital, EHU:* 572 dokumentua.

izan dute. Gainera, Busturiako Madariaga dorretxea ere aipatzen da, harena baitzen Urdaibaiko jauregia.

1070ean bertan, Mome Nunnuç izeneko jaunak San Juan de la Peñari eman zion Mundakako eliza, bertatik kudea zitezen monasterio horrek Bizkaian zituen ondasunak. Hala, eliza hori Axpetik askatu eta bere errenta propioak kudeatzen hasi zen.

1093an, aldiz, Tiklo kondesak Almikako eliza utzi zuen Donemiliagako monasterioaren esku, bere ondasun guztiekin: soroak, baratzeak, sagastiak, baita inguruko mendietan abereak bazkatzeko eskubidea ere. Almikaren menpe zeuden elizen zerrenda ere aipatzen da: Uhekelu, Munitiz, Bakio, Urdoniz eta Berandoa[2].

1070ko nahiz 1093ko agirietan, Muruetako Eneko Didacoç jauna agertzen da lekukoen artean. Pertsonaia hori Muruetatorre edo Torregana etxeekin lot liteke agian.

Elizekin eta dorretxeekin batera, botere publikoaren adierazpen gisa eraikitako arkitektura militar bat ere azaldu zen garai honetan: gazteluak. Alde batetik, Zarragoiti gaztelua aipatu behar da. Arkeologoek XI. mendean datatu dute bere eraikuntza eta, Bermeoko portuaren gaineko kontrol ezin hobea izanik, Bizkaiko kondeen egoitza nagusiarekin identifikatu izan da. Beste aldetik, Ereñozar gaztelua ere XI. mendean eraiki zuten, Urdaibaiko itsasadarraren gaineko kontrola bermatzeko. XIII. mendera arte egon zen okupatuta (Neira Zubieta, 2018).

Pixkanaka, Bizkaiko herrien arteko desberdintasunak areagotzen joan ziren. Elizen bilakaera da horren isla. Batzuk gero eta aberatsagoak ziren, eta XII. mendetik aurrera parrokia funtzioak zentralizatzen ere hasi ziren, bataio-gune eta hilerri gero eta handiagoekin, adibidez. Eraikinak ere berritu eta zabaldu egin ziren, arkitektura erromanikoaren ereduei jarraiki; garai horretako zenbait elementu kontserbatzen dira, adibidez, Foruko, Gautegiz Arteagako eta Kortezubiko elizetan. Beste eliza batzuk, berriz, bazterturik gelditu ziren; hilerriak abandonatu, eta ermita soil bihurtu ziren —eta, zenbait kasutan, elizak beraiek ere galdu ziren.

Bilakaera horren guztiaren emaitza da Bizkaiko lurralde-egitura, XIII.-XIV. mendeetan osatu zena.

[2] *Becerro Galicano Digital, EHU:* 576 dokumentua.



▲
Kortezubiren ikuspegia; atzean, Ereñozar.
Egilea: Indalezio Ojanguren (1937).
Iturria: Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, OA 02110.

Landa-eremuan *elizateak* ziren oinarrizko unitatea. Lurralde zabal samarra hartzen zuten, hainbat auzok osatuta. Auzo horietako batzuk etxe-multzo trinkoak ziren, baina beste batzuk egitura sakabanatuagoa zuten. Zenbait kasutan, ermita bat zeukaten erdigunean, antzinako herri-izaeraren lekuko. Baina, nolanahi ere, elizate bakoitzaren benetako erdigunea parrokia-funtzioak zituen elizak markatzen zuen, sarri Elexalde izena hartuta. Urdaibai inguruko elizateak —Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Lumo, Ajangiz, Arratzu, Kortezubi, Gautegiz Arteaga eta Ibarrangelu— Busturiako merindadearen parte ziren, Bizkaiko Lur Laua delakoaren baitan. Usadiozko lege orokorren bidez gobernatzen ziren, eta horiek 1452an jaso ziren idatziz, Foru Zaharra osatuz.

Egitura honetatik bereizita zeuden hiribilduak, Bizkaiko jaunek aitortutako beren foru propioak baitzituzten. Urdaibai inguruan hiru hiribildu fundatu ziren: Bermeo (1236), Gernika (1366) eta Errigoiti (1376). Lehen biek, bereziki, izaera urbanoa garatu zuten, eta itsaso bidezko merkataritzan espezializatu ziren batik bat.

3.2.3. Aro Modernoa – Baserriaren hedapena eta artoaren iraultza

Elizateen egitura egonkor mantendu zen Aro Modernoan zehar. Haien baitan etxea zen oinarrizko auzotasun-subjektua, bertan bizi ziren gizon eta emakumeen eskubideak eta betebeharrak finkatzen zituena. Horregatik, etxeak eta baserriak erreferente garrantzitsuak ziren tokiko paisaian, alderdi materialean —funtzio ekonomiko batzuk eta balio estetiko batzuk barne biltzen zituen eraikin gisa— zein sinbolikoan —belaunaldiz belaunaldi transmititu izan diren etxe-izenen bitartez.

Euskal baserriaren oinarrizko eredua Aro Modernoaren hasieran finkatu zen, XV. mende bukaeran edo XVI. hasieran. Oro har, isolatutako eraikin gisa defini daitezke, lauki itxurako plantarekin eta bi isuriko teilatuarekin. Hiru solairutan antolatuta egoten ziren. Beheko solairuan kortak eta biltegiak aurkitzen ziren eta, batzuetan, ezkaratza; lehen solairuan, bizitokiak; eta, teilatupean, lehortegi moduan erabiltzen ziren ganbarak. Etxeen inguruan, aldiz, askotariko nekazaritza eta abeltzaintza eremuren mosaiko bat zabaltzen zen; ortuak, soloak, sagastiak eta mahastiak, belardiak, kortak eta abar. Baserria, beraz, unitate ekonomiko intentsiboa eta dibertsifikatua zen, betiere, familia-talde batek kudeatuta.

Hala definituta, baserrien garapena garaian garaiko bilakaera historikoarekin lotuta egon zen. Ez da harritzekoa lehen adibide monumentalak XV. eta, batez ere, XVI. mendean azaltzea, une horretan euskal kostan aldaketa handiak ari baitziren gertatzen. Amerikaren konkistak eta Atlantikoaren bi aldeak lotzen zituzten merkataritza sareen garapenak bultzada ekonomiko handia eman zien euskal portu eta hiribilduei, eta merkatu urbano gero eta handiago horiek elikagaien eta bestelako produktuen eskari handia zuten. Baserritarrak, autokontsumorako ez ezik, merkatura bideratzeko produktuak ekoizten hasi ziren: ogia egiteko garia, adibidez, baina baita sagardoa ere, ezinbestekoa itsasontzietan bidaiatzen zuten marinelentzat. Gainera, baserrien artean lehen burdinola hidraulikoak ere sortu ziren, inguruko meategietan ustiatzen zen burdina landu eta, neurri handi batean, esportaziora bideratzeko.

Baina, salgaiak esportatzeaz gain, inportatu ere egin ziren garai honetan; eta ez nolanahikoak. Amerikatik nekazaritza-produktu berriak iritsi ziren, eta horietako batzuk oso ondo egokitu ziren bertako kliman eta lurzoruetan. Horrela, XVII. mendetik aurrera baserrietako ohiko labore —eta herritarren dietaren parte— bihurtu ziren piperrak, indabak, patatak eta, batez ere, artoa. Azken horrek benetako iraultza eragin zuen Euskal Herriko nekazaritza sisteman. Garia eta artoa lursail berberetan txandakatzean, lugorria desagertu eta uztak biderkatu egin ziren, eta horrek benetako eztanda demografikoa eta ekonomikoa ekarri zuen. Baserri kopurua etengabe hazi zen, unitate zaharrak bitan zatituz nahiz ordura arte okupatu gabeko tokietan berriak sortuz. Beste batzuk, aldiz, goitik behera berritu zituzten, arkitektura molde berrien arabera.

▲
Garia biltzen Bizkaiganan (Metxika, Errigoiti).
Egilea: Indalezio Ojanguren, 1936.
Iturria: Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, OA01878.

Gari metak San Bartolome auzoan (Busturia).
Iturria: Paia (2011).
▼


▲
Arto soloak Muniategigoieaskoa baserri inguruan (Gautegiz Arteaga). Egilea: Indalezio Ojanguren, 1937. Iturria: Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, OA 02021.



Tomato plant and root, 1613, Basilius Besler, Real Jardín Botánico Madrid RJB-CSIC CC BY-NC-SA




▲
Tomatea *(Solanum lycopersicum)* eta piperra *(Capsicum annuum).* Egilea: Basilius Besler (1613), *Hortus Eystettensis.*



▲
"Frumentum turcicum" edo artoa *(Zea mays). Herball, or Generall Historie of Plantes*. Egilea: John Gerard (1597).

Esan daiteke, herri-sarearen oinarriak Erdi Aroan finkatu baziren ere, Aro Modernoko globalizazio atlantiarraren ondorio direla egun arte bizirik iritsi diren baserri-paisaiak.


Bilakaera horren lekuko, Urdaibai inguruan hainbat baserri historiko kontserbatzen dira. Sakabanatuta egon arren, ia denek kokapen bereizgarria dute; itsasadarraren ertzetako magaletan kokaturik egon ohi dira, baina beti padura eremuetatik kanpo. Hala, lur lauak eta eguzkitsuak dituzte inguruan, nekazaritzarako aproposak, baina mareen fluxuei lotutako uholde-arriskuak saihestuz.



◀ Etxe kopuruaren bilakaera Urdaibaiko bost elizatetan. Iturria: Kerexeta (1992).

Beren ezaugarri krono-tipologikoen arabera, baserri hauek hiru multzotan sailka daitezke (Santana, 2003):

- ***Gotiko-Berpizkunde garaiko baserriak.*** XV. mende bukaeran edo XVI. mende hasieran eraikitakoak dira. Gehienetan, garai horretako elementu gutxi batzuk baino ez dituzte kontserbatzen, gerora egindako konponketa eta zabaltzeen artean: arku gotiko edo konopial itxurako baoak, fatxadetako hegalak, eta abar. Barruan zurezko habe-egituraz osatuta egoten dira. Kanpoko hormak harrizkoak dira beheko solairuan, eta egurrezko bilbaduraz eginak hortik gora. Fatxada nagusiaren erdian atarte zabal bat izaten dute, kanpoaldearen eta barrualdearen arteko trantsizio moduan.



▲ Meaurio baserria (Kanala, Gautegiz Arteaga). Etxea guztiz berrituta dago. Hala ere, berrerabilitako arku gotiko baten aztarna ikus daitezke iparreko fatxadan. Bere jatorria XV.-XVI. mendeetan koka daiteke.



▲ Beaskoa baserria (Forua). Eraikina berrituta dago. Dena den, mendebaldeko fatxadan pieza bakar batean landutako leiho gotikoa dauka, XV.-XVI. mendeetan koka daitekeena.

- ***Baserri barrokoak.*** XVII. mendean zehar eta XVIII.aren lehen erdian, zurezko habe-egituradun baserriaren ereduaren zabalkundea eman zen, eraikin xumeetan zein aberatsetan aplikatuz. Pixkanaka, egurrezko zutabeekin batera harrizko euskarriak agertu ziren. Gainera, fatxadetako hegalak gutxitu eta, taulazko itxituren ordez, zurezko bilbaduraz eta adreiluz zein harlangaitzez osatutako ebazpenak hedatu ziren. Atarteak mantendu egin ziren, eraikinaren sarrera nagusi moduan. Lehen aldiz, atalburuetan eraikuntza data eta jabearen izena inskribatzeko ohitura ere agertu zen.

- ***Baserri neoklasikoak.*** XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, baserrien arkitekturan zurezko egituren ordez harriz egindako eraikinak nagusitu ziren, eredu neoklasikoen araberako ebazpenekin. Garai honetako baserriak bi multzo handitan sailkatzen dira. Lehen multzoan harlanduzko hormaz osatutako egiturak daude; hasiera batean beheko solairuan, eta pixkanaka eraikin osoan. Zurezko elementuak atartean eta bere gaineko fatxadan baino ez dira mantentzen. Bigarren multzoa, berriz, arkupez osatutako atartea duten baserriek osatzen dute, hauek ere harlanduzko egiturarekin. Sarrerako arkua, batzuetan arku bikoitza, eskualdeko baserrien ezaugarririk bereizgarriena da garai honetan, zenbait kasutan dekorazio-elementu aberatsekin.



▲
Ozollo baserria (Gautegiz Arteaga). Zurezko bilbe-egitura du oinarrian, habe handi batek mugatutako atarte zabal batekin. Beheko solairua harrizko hormaz indartuta dago. Atalburuan 1694ko data daraman arren, baliteke oinarrizko egitura zaharragoa izatea, XVI. mendekoa agian.






▶ Gardoi baserria (Gaitoka, Forua). Zurezko bilbaduraz osatutako egitura du eta beheko solairua harrizko hormaz indartuta dago, XVII. mendeko ohiko ereduari jarraiki. Atartean harrizko zutabe bat ageri da, eta haren gainean balkoia. Atalburuko inskripzioak 1701eko data darama.



▶ Landa baserria (Murueta). XVIII. mendeko baserri neoklasikoaren ereduari jarraitzen dio. Egitura harrizko hormaz osatuta dago, eta zurezko elementuak atarteko habean eta horren gaineko bilbean baino ez dira kontserbatzen. Alde batean, sukaldeari dagokion eranskina ikusten da.




▶ Lezika baserria (Basondo, Kortezubi). XVIII. mendeko harrizko baserri neoklasikoaren beste adibide bat da, kasu honetan puntu erdiko arkuz osatutako atartearekin. Atalburuan 1761eko data darama.




◀
Protohistoria

Lurraldearen kontrola gune estrategikoetan kokatutako herri gotortuen bidez gauzatzen zen. Horiekin batera, santutegiak eta kobazuloetako okupazioak ere bazeuden, baina lurraldearen ustiaketa ezezaguna da oraindik.




◀
Antzinaroa

Itsasadarra komunikazio ardatz bilakatzean, haren inguruan portu funtzioa zuten herrigune berriak sortu ziren. Barnealdean, gotortutako herri zaharrak gainbeheran sartu ziren, egitura deszentralizatuko kokaguneek ordezkatuta desagertu arte.



Erdi Aroa

Itsasadarraren inguruan bizigun egonkorrak finkatu ziren, mendi magaletan sakabanatuta. Herri horien artean, botere-gune batzuk ere garatu ziren, elemenetu monumentalen bidez nabarmenduek: elizak, gazteluak eta dorretxeak.




Aro Modernoa

Elizateen bilakaera baserriaren hedapenak markatu zuen, mendi magalak okupatuz. Horrez gain, erreka ertzetan burdinolak eta errotak bezalako azpiegiturak ugaritu ziren. Portu-jarduerak hiribilduetan zentratu ziren.

04

Itzak: espazio berezi bat



4.1. PADURAK ETA MAREA ARTEKO EREMUAK

4.2. TOPONIMIA KONTUAK

4.3. ERABILERA ESTENTSIBOAK

4.4. ITSAS ERROTAK

Itzak edo padurak dira, zalantzarik gabe, Urdaibaiko kultur paisaiaren elementu bereizgarrietako bat. Atal honetan, espazio hauen ezaugarriak definitu, eta gizakiak haiekin izan duen harreman historikoa aztertuko da.

4.1. PADURAK ETA MAREA ARTEKO EREMUAK

Beste edozein estuario bezala, Urdaibaiko itsasadarra eremu aldakorra da. Bertan batzen dira ur geza kontinentala eta marea fluxuen arabera mugitzen den ur gaziak, eta bien elkar eraginak tokiko ekosistemak moldatzen ditu, dinamika sedimentarioak definituz eta izaki bizidunen distribuzioa baldintzatuz. Hala, itsasadarraren barrualdetik bokaleraino hainbat motatako hezeguneak aurkitzen dira, kota, substratu, gazitasun eta habitat ezaugarri bereizgarriekin.

Laburbilduz, itsasadarraren berezko ekosistemak bost unitate nagusitan sailka daitezke:

- **Goi padurak.** Kota altuenetan kokatutako hezeguneak dira; itsasoaren eragina oso ahulduta iristen da bertara, eta lurzoruak ongi finkatuta egon ohi dira. Ihiz eta gramineoz (*Elymus spp., Festuca spp.*) osatutako belardiz estalita egoten dira, baina agertzen dira lezkak (*Typha sp.*), azeri-buztanak (*Equisetum spp.*) eta sahatsak (*Salix spp.*) ere.



- **Erdi padurak.** Aurrekoak baino apur bat kota baxuagoetan kokatzen dira. Itsasoak marea bizietan baino ez die eragiten, eta lurzoruak nahiko finkatuta egoten dira hemen ere. Europar Batasunak 1330 epigrafeaz babestutako habitata aurkitzen da bertan; itsas getozken eta ihien komunitateak (*Juncus maritimus* eta *Juncus acutus*), gramineoak (*Puccinellia maritima, Phragmites spp.*), eta abar. Mota honetako habitatak aurkitzen dira, gaur egun, Muruetako hezeguneetan, adibidez.



- **Behe padurak.** Itsasgoraren batez besteko mailaren eraginpean dauden eremuak dira. Erregularki urpean gelditzen dira, eta ur korronteen arabera mugitzen dira sedimentuak ere. 1420 epigrafedun habitatak aurkitzen dira bertan: getozkak (*Halimione portulacoides*) eta salikorniak (*Sarcocornia fructicosa, Sarcocornia perennis*) batik bat, lurra finkatzen laguntzen dutenak.



- **Marea arteko lautadak.** Egunean hainbat orduz urpean egoten diren eremuak dira, kresalaren eragin handia dutenak. Sedimentuak finkatu gabe egoten dira, eta marea fluxuekin mugitzen dira etengabe. Bertako landaretza halofitoa da, hots, kresalaren eraginpean bizi daiteke. Habitat desberdinak kotaren arabera antolatutako solairuetan antolatuta egoten dira. Hala, espazio hauen mugetan salikorniak aurktizen dira (*Salicornia lutescens, Salicornia ramosissima, Aster tripolium, Suaeda maritima* eta abar), 1310 epigrafean bilduak. Maila bat beherago, 1320 habitata aurkitzen da. Bertan *Spartina maritima* da espezie nagusia eta ia bakarra. Azken mailan, ia beti urpean egoten diren eremuetan, algak dira nagusi (*Zostera noltii,* adibidez). Materia gutxiko lurzoru lohitsuak edo hareatsuak dira, pH altua eta itsasoaren antzeko gazitasuna dutenak. Solairu hauen arteko trantsizioa ondo ikusten da, besteak beste, Busturiko paduretan.



- **Hareatzak eta dunak.** Itsasadarraren kanpoko muturrean kokatutako hareatzetan 2110 eta 2130* habitatak lirateke, berez, nagusi; baina Urdaibain halako ekosistema gutxi kontserbatzen dira. Laidako dunak 1950ko hamarkadan desagertu ziren eta, berreskuratzeko saiakerak egin izan diren arren, momentuz ez dute arrakastarik izan. Duna-ekosistema txikiak aurkitzen dira, besteak beste, Kanalako Solabe hondartzan eta Busturian, Mapeko errekaren bokale ondoan egin den betelanean.



Dena den, azpimarratu beharra dago berezko ekosistema horiek izugarri eraldatuta ageri direla gaur egungo paisaian, gizakiak eta ingurumenak mende luzetan zehar izan duten elkar-eraginaren ondorioz.

4.2. TOPONIMIA KONTUAK

Ahozko iturriei nahiz artxibategietako agiriei esker, marea arteko eremuei lotutako hainbat toponimo identifika daitezke Urdaibaiko itsasadarraren inguruan. Oro har, hiru multzo nagusi bereiz daitezke.

Goi padurak, marearen eragin txikiena jasotzen dutenak, *ibar* hitzarekin izendatzen dira. Multzo honen barruan daude Ibarra izeneko parajea, Gautegiz Arteagan; Itsasaldeko Ibarrak eta Akurio Ibarrak, Muruetan; eta Barrutibarra, Foruan (Gernikako eta Arratzuko mugan). Beste izen batzuk antzinako agirietan jasota agertzen dira, baina zaila da haien kokapena zehaztea; Ibarburu izeneko parajearen kasua litzateke, Foruan. Aipagarria da XVI.-XVII. mendeko agirietan *ibar* hitza izen arrunt gisa agertzen dela, baita gaztelaniaz idatzitako testuetan ere, garaiko gizartean hizkuntza nagusia euskara zela argi eta garbi erakutsiz.

Behe paduretan, aldiz, *itzak* deitzen zaie itsasadarraren inguruko herrietan. Euskal toponimian oso zabalduta dagoen hitza da, bereziki estuarioetan; *ihi* landare-izena du oinarri, *-tza* ugaritasun atzizkia gehituta (Euskaltzaindia, 2023). Hitz honek bere gaztelaniazko ordaina du XVIII. eta XIX. mendeko agirietan, eremu hauek *juncal* edo *junquera* moduan izendatzen baitira. Gautegiz Arteagan, adibidez, ohikoa da auzo bakoitzaren oinetan kokatutako paduren izenak horrela osatzea: Ozolloko Itza, Naberango Itza, Islako Itza, Oruetako Itza, eta abar.

Hain zuzen ere, *itsaso* da inguru hauetako toponimian sarri errepikatzen den beste hitz bat; zentzu zabalean, marea fluxuen eraginpeko eremuak izendatzen ditu, eta baliteke *i(hi) tza* + *tzu* ugaritasuneko atzizkiaz osatu izana. Busturian, Axpeko errekaren bokale ondoan Itsasondo baserria aurkitzen da, eta Mapeko errekaren bokalean, berriz, Itsasalde izeneko parajea. Foruan, iturri historikoek Itsasoleku izeneko padura aipatzen dute, baina toponimo hori galduta dago gaur egun. Azkenik, Muruetako padurei Itsasaldeko Itzak deitzen zaie.

4.3. ERABILERA ESTENTSIBOAK

Mende luzez, Urdaibaiko gizarteak modu estentsiboan baino ez zituen itzak ustiatu. Marea fluxuen eraginpean egonik, eremu horiek etengabe aldatzen ziren, eta ez ziren egokiak ez bizitoki egonkorrak ezartzeko, ezta nekazaritzarako ere.

Gainerako itsasadarretan bezala, Bizkaiko Foruak (Foru Zaharra, 1452; Foru Berria, 1526) arrantza askatasuna xedatzen zuen herritar guztientzat; baina debekatu egiten zuen sare handiak edo arrantzarako tranpa finkoak instalatzea. Hortaz, izokina eta amuarraina bezalako espezieak eskuz baino ezin ziren harrapatu.

Horrekin batera, Foruak abereak bazkatzeko askatasuna ere xedatzen zuen Bizkaiko landa guztietan. Hala, ohikoa zen baserrietako ganaduak —behiak batik bat— itsasadar inguruko itzetan aske bazkatzen uztea. Muruetako ganaduak, adibidez, Foruko eta Busturiko itzetan ere bazkatzen ziren, marea-fluxuek definitutako paisaia aldakor baten erritmoan.

Baina, zalantzarik gabe, ihi bilketa zen eremu hauetako jarduerarik hedatuena (Gogeascoechea & Juaristi, 1997). Erdi Aroko erregistrorik ez dagoen arren, pentsatzekoa da aspalditik datorrela ihiak moztu eta baserrietan abereen azpigai moduan erabiltzeko ohitura, gero ongarria egiteko. Ongarri hori ezinbestekoa zen soloetan garia, artoa eta arbia txandakatzen zituen nekazaritza-ziklo intentsiboa mantentzeko. XVIII. eta XIX. mendeetako iturriek behin eta berriro aipatzen dute ihi-bilketa, herritarrentzat oso baliabide preziatua zela azpimarratuz. Ordurako, praktika hori ongi errotuta zegoen, eta xeheki araututa elizate bakoitzeko ordenantzetan.



▲
Ihiz estalitako padura Kortezubi eta Gautegiz Arteaga artean.

Itsasadarretik hurbil kokatutako baserriek beren itza propioak izan zitzaketen. Busturiko Sagarminaga etxearen kasua da, Axpeko errekaren eta paduren ertzean; 1712ko notariotza agiri batek jasotzen duenez, etxeko andre Madalena Sagarminagak lau peoitako itza bat errentan eman zion Domingo Kaltzadari, zortzi urterako eta inolako errentarik ordaindu gabe[3].

Baina, salbuespenak salbuespen, itsasadarreko itzak jabetza komunalekoak izaten ziren, eta dokumentuek *exido* hitzarekin izendatu ohi dituzte. Kortezubin San Emeterio eta San Zeledonio egunez (martxoak 3) hasten zen ihia mozteko sasoia, ordura arte debekatuta baitzegoen. Herritarrek nahi adina ihi mozteko eskubidea zuten, mugarik gabe. Gautegiz Arteagan ere martxoan hasten ziren ihia mozten, maiatzera arte. Baina, kasu honetan, itzak parte berdinetan banatzen ziren herritarren artean, kanon baten truke. Behin moztuta, ihiak tokian bertan utzi behar ziren lehortzen, eta ekainaren 15ean baino ezin ziren jaso eta baserrietara eraman[4].

Beste herrietan ere ohikoa zen itzak herritarren artean banatzea. Muruetan, adibidez, hiru auzoren artean banatzen ziren; 1773an udalak Simon Enparan peritu bermeotarra izendatu zuten, parte guztiak berdinak izateko neurketa egin zezan[5]. Foruan, berriz, itzak lau partetan banatzen ziren, eta parte horietako bakoitza, aldi berean, hamabost baserriren artean. Baserri bakoitzari zegokion partea zozketa bidez finkatzen zen urtero[6].

Arau-hausteak ere izaten ziren, jakina. 1717an, adibidez, Muruetako elizateak Juan Ibinarriaga izendatu behar izan zuen, gehiegizko mozketak egiten ari ziren bizilagunen aurkako auzian ordezkari moduan[7]. Kortezubin ere, udalak 1807an salaketa jarri zuen Juan eta Jose Astorraren aurka, herriaren itzetan ihiak moztu eta baimenik gabe ateratzeagatik[8].


4.4. ITSAS ERROTAK

Euskal Herri osoan bezala, pentsatzekoa da errotak aspalditik egon direla Urdaibain, ezinbesteko elementuak baitziren garia ehotzeko eta ogia egiteko. Hasiera batean eskuzko errotak erabiliko ziren arren, Erdi Arotik aurrera errota hidraulikoak zabaldu ziren, hau da, uraren energia aprobetxatzen zuten instalazioak. Aro Modernoan zehar, artoaren iraultzak eragindako hazkundeari esker, errota berri ugari eraiki ziren. Gainera, beren mekanismoak gero eta handiago eta konplexuago bilakatu ziren, eta aldaera berriak ere agertu ziren, marea fluxuen bidez funtzionatzen zuten itsas errotak adibidez.

[3] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0030/0185.
[4] Gautegiz Arteagako Udal Artxibategia, Dekretu Liburua (1805-1850), 16/04/1806.
[5] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0370/128.
[6] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JCR1503/018.
[7] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0032/0115.
[8] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0470/001.

Itsas erroten presentzia da, hain zuzen, Urdaibaiko kultur paisaiaren ezaugarri bereizgarrietako bat. Marea-fluxuen eraginpeko eremuetan kokatuta egoten ziren, kostaldean nahiz itsasadar baten ondoan. Antepara edo depositu bat izaten zuten alboan, konporta baten bidez itsasoarekin konektatua. Itsasgoran, konporta ireki eta antepara urez betetzen zen; itsasbeheran, berriz, konporta itxi egiten zen, barruan harrapatutako ura ateratzea oztopatuz. Beste konporta baten bidez, ur hori errotara bideratzen zen gero, azelina edo turbina aktibatuz. Horrek, aldi berean, errotarriak mugitzen zituen; bi izan ohi ziren, gutxienez, bata garia ehotzeko eta bestea artoarentzat.

Urdaibaiko itsas errotak.



Urdaibai inguruan zortzi itsas errota egon ziren, gutxienez:

- **Portupin** (Gautegiz Arteaga). Errotazarra ere deitua. Orueta auzoaren azpian kokatuta zegoen, Okaren ibilbide zaharraren eskuineko ertzean. Agirietan XVI. mendearen bigarren erdian aipatzen da lehen aldiz. Gautegiz Arteaga eta Kortezubi elizateen jabetza partekatua zen, eta bi udalek errotari bati uzten zioten, errenta baten truke epe jakin batez kudea zezan. Hainbat errotariren izenak kontserbatzen dira: besteak beste, Juan Mestraitua (1571), Martin Ibañez Baraiz (1578), Santxo Belendiz (1583), Maria Tremoia eta Maria Lopez Portu (1591), Pedro Ruiz Aboitiz (1594)[9]. Gero, Arteagako oinetxearen eskuetara pasa zen, eta 1614-1622 artean guztiz eraberritu zuten; Martin Ibañez Baraiz harginak presa konpondu zuen, eta Juan Gazeaga Zea harotzak, berriz, errotaren zurajeak[10]. Horren ondotik, berriro errentan eman zuten: 1649an Martin Gazteategi Aurrekoetxea eta Madalena Laizatategi senar-emazteei, eta 1650ean Pedro Gaztañagari, lau urtez. Fase berri honetan, errotarekin Palaziotxu izeneko etxea errentatu zen, errotariaren bizitoki moduan[11]. Litekeena da 1745eko Su Liburuan aipatzen den Barrenerrota izenekoa, arteagatarren jabetzekoa, eraikin bera izatea; urte horretan Josepa Arbatzegi bizi zen bertan maizter (Kerexeta, 1992).



▲
Portupin errotaren aurriak, ihiz inguratuta (Gautegiz Arteaga).

[9] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0358/0371; N0358/0373; N0358/0401; N0361/0124; N0361/0242; N0363/0080; N0364/0370.
[10] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0307/046; JTB0402/047; JTB0402/048.

- **Errotabarri** (Gautegiz Arteaga). Kanala auzoan dago, itsasadarraren eskuinaldean. Bere aipamen zaharrena 1723koa izan liteke; urte horretan, Martin Goitisolok salaketa jarri zuen Juan Meaurio, Diego Sasoategi, Domingo Andramortu, Juan Bekoetxea eta haien emazteen aurka, Uradarioaga izeneko parajean marea-errota bat eraiki zutelako[12]. Azken toponimo horrek ez du egungo ordainik, baina salaketan zehazten da errota berriak Goitisolo baserriaren ondasunetarako bidea oztopatzen zuela; baserria Errotabarritik hurbil dagoenez, ondoriozta liteke hauxe dela dokumentuan aipatzen den errota. 1745ean Antonio Goenengoa eta Juan Andikoetxeta ziren jabeak (Kerexeta, 1992).

- **Bekoerrota** (Busturia). XVIII. mendean itsas erroten hainbat aipamen daude Busturian. 1729an, adibidez, Juan Ignazio Agirre Tellaetxea eta Maria Amunategi senar-emazteek Lekeitioko Jesusen Konpainiaren eskolarekin sinatutako hipotekan "Axpe Busturiko itsas errota" aipatzen da[13]. Aurrerago, elizatea agertzen da bost errotarriko Itsaserrota izeneko baten jabe. 1741ean Juan Ignazio Agirreri berari saldu zion, baina operazioa bertan behera gelditu zen, notarioari zegozkion tasak ez ordaintzeagatik[14]. 1745ean dagoeneko Agirre errotaren jabe moduan agertzen da, eta Jose Goiena, berriz, errotari moduan (Kerexeta, 1992). 1766an, Andres Mirandona eta bere semeak agertzen dira errotari moduan, errenta ordaintzen[15]. 1767an, aldiz, Juan Jose Mendoza Arteagak erosi, eta urtebete beranduago bere osaba Juan Ignazio Madariagari saldu zion[16]. 1771ean, dagoeneko, itsas errota Madariaga oinetxearen maiorazkoan jasota agertzen da; Juan Ignazio Madariaga zen horren jabea baina, Cádizen bizi zenez, ilobak administratzen zizkion sorterriko ondasunak[17].

  Baliteke erregistro horiek guztiak egitura berari buruzkoak izatea: egungo Bekoerrotari buruzkoak, hain zuzen. Axpeko erreka itsasadarrean isurtzen den lekuan kokatuta dago; inguruan, gainera, Itsasondo baserriarena bezalako toponimo adierazgarriak daude. Eraikina oso eraldatuta dago, eta ez du jatorrizko egituraren inolako elementurik gordetzen.

- **Kobaerrota** (Gautegiz Arteaga). Garai desberdinetan Portuerrota eta Ozolloerrota izenak ere hartu izan ditu, bi auzo horien artean kokatuta baitago, Okaren ibilbide zaharraren eskuineko ertzean. 1599an, errenta- eta konpromiso-agiri banak Arteagako leinuaren jabetzako marea-errota bat aipatzen dute[18]; Kobaerrota izan litekeen arren, testuan ez da zehazten ez bere izena eta ezta kokapena ere. Hala, lehen aipamen ziurra 1683koa da, orduan (ber)eraiki baitzuten "por horden de los señores de la casa y fortaleza de Arteaga". Bi bikoteri eman

[11] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0602/012; JTB0373/004.
[12] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0232/003.
[13] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0455/0083.
[14] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, BUSTURIA 0068/008/017.
[15] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0055/0157.
[16] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0056/0003; N0056/0059; N0056/0074.
[17] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0057/0017.
[18] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0365/0402; N0365/0492.

zieten lanen ardura, baita errotaren errentamendua ere: Martin Ozamiz eta Beatriz Sarastegi senar-emazteek osatutakoari, alde batetik, eta Juan Etxebarriari eta Maria Ozamizi, bestetik; azken horiek beren partea Martin Goitisolori saldu zioten, 1689an[19].

Ordutik, Ozamiz eta Goitisolo sendien artean banatuta egon zen errota, ia bi mendez. 1745eko Su Liburuan Martin Ozamiz eta Juan Goitisolo agertzen dira jabe moduan, eta Manuel Ozollo errotari moduan (Kerexeta, 1992). 1748an, Juan Goitisolok eta bere emazte Josepa Zendokizek beren partea saldu zuten; lehenaren izeba-osabak, Martin Goitisolo eta Josepa Urizar izan ziren erosleak. Azken hori alargundu egin zen gero, eta bere partea dohaintzan utzi zion Katalina Goitisolori, 1766an. Katalina bost urte geroago ezkondu zen Ignazio Lezertuarekin; errotaren partea Manuel Ortuzar semeak eta bere emazte Madalena Ortuzarrek jaso zuten, eta hauek haren seme Manuel Lezertuari eman zioten 1822an, Mikaela Garteizgoieaskoarekin ezkon zedin. Bikote horrek, 1844an, hipotekan jarri zuen errotan zeukan partea, eta 1851ean beste erdia erosi zioten Juan Jose Ozamizi. Hipoteka 1862an kitatu zuten. Ordutik, errota osoa familia bakarraren esku gelditu zen.

Kobaerrotaren egitura egoera onean kontserbatzen da oraindik. Sistema hidrauliko konplexua dauka, aldi berean itsasoko eta errekako urez elikatzen baita. Antepara handi bat du horretarako, lubakiz inguratuta; bertara iristen dira Kobako iturburutik datozen urak, eta aldi berean konporta bat dauka itsasgoran ura sartzen utzi, eta itsasbeheran irtetea galarazteko. Eraikinaren barruan jatorrizko errotarrietatik bi gordetzen dira. Gainera, hareharriz egindako bi azelina ere kontserbatzen dira errotaren inguruan; oso arraroak dira material horrekin egindakoak, eta XVII. mendearen bueltan koka daitezke (García-Diego, 1984).



◄ Kobaerrota (Gautegiz Arteaga). Harrizko azelina monolitikoak.

[19] Kobaerrotako jabeen artxibategi pribatua.





- **Mallukitza** (Murueta). Itsaserrota izenaz ere ezaguna. Herriko elizaren oinetan kokatuta dago, itsasadarraren ezkerraldean. Juan Foruriaren eta Maria Hormaetxearen arteko ezkontza hitzarmenean aipatuta agertzen da lehen aldiz, 1730ean, beste ondasun batzuekin batera[20]. Atalburuan agertzen den inskripzioak 1796ko data darama, eraberritze baten lekuko agian. XIX. mendean, aldiz, errotak zereala ehotzeari utzi, eta industriara lerratu zen. Garai hartan Manuel Santos Txirapozu zen jabea, eta 1858an Busturiko San Mames toska-lantegiari alokatu zion, bertan buztina birrintzeko —lantegiaren sortzaileetako bat, Jose Eusebio Txirapozu, bere anaia zen. Baina, enpresak egitura kaltetu zuela eta errentak ordaindu ez zizkiotela salatuta, Txirapozuk auzitara jo zuen 1865ean, eta bi urte geroago epaileak arrazoi eman zion, kalte-ordainak jasotzeko eskubidea aitortuz[21].

  Gaur egun, eraikina nahiko egoera onean kontserbatzen da, itsasadarretik aparte gelditu bada ere. Bi ardatzeko errota da, harlanduz egina, eta lauza bakar batez osatutako zubi handi bat dauka.



▲
Mallukitza errota 1942. urtean. Egilea: Indalezio Ojanguren. Iturria: Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, OA00532.

[20] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0058/0017.
[21] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JCR4463/169.

▲ Mallukitza errota (Murueta). ▼

- **Errotabarri** (Kortezubi). Itsasadarrak eta Jausoloko errekak bat egiten duten lekuan kokatuta dago, herriko elizatik hurbil. Dagoeneko 1704ko Su Liburuan agertzen da; Pedro Margota eta Juan Lezertua ziren orduan jabeak, eta Antonia Bolunburu bizi zen bertan maizter (Kerexeta, 1992). 1731an Pedro Lezertua eta Juan Ozamiz Jausolo ziren jabeak; salaketa jarri zuten errekan gora beste errota bat eraikitzen ari ziren bi auzotarren aurka, ura kentzen zietelako[22]. 1745eko Su Liburuan oraindik Pedro Lezertua agertzen da errotaren erdiaren jabe moduan, beste erdia Martin Margotarena zela; Juan Sakona errotaria bizi zen bertan. 1796ko Su Liburuan, aldiz, Juan Margota eta Bartolome Landeta aipatzen dira jabe moduan (Kerexeta, 1992). 1809an, azken horren alargunak, Madalena Lezertuak, salaketa jarri zien bere seme Juan Antonio Landetari eta Juan Ozamiz Margotari, errotan zegokion partea erreklamatuz[23].

▼ Errotabarri (Kortezubi).



[22] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0652/008
[23] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0439/013.



▲ Errotatxu (Gautegiz Arteaga). Aurriak.

- **Errotatxu** (Gautegiz Arteaga). Argasburuko errota ere deitua. Kobaerrotatik metro eskasera kokatuta dago. 1750ean, Manuel Ozamiz eta Madalena Ibieta senar-emazteek Argasburu baserria hipotekatu zuten, bere jabetza guztiekin. Horien artean itsas errota baten herena aipatzen da, "Gautegiz Arteagako elizateko itsasadarrean kokatua"[24]. 1796ko Su Liburuan ere hiru itsas errota aipatzen dira Gautegiz Arteagako elizatean —Arostegi, Juan Ozollorena; Baztererreka, Juan Bekoetxearena; eta Baraiz, Juan Urizar Nabearena—, baina zaila da haien izenak planoan kokatzea. Nolanahi ere, Errotatxu Argasburu baserriaren jabetza gisa mantendu zen XX. mendera arte. Egun, errota oso hondatuta dago, eta zenbait hormaren aztarnak baino ez dira ikusten.

Laburbilduz, Urdaibaiko itsasadarrean itsas errotak eraikitzeko joera Aro Modernoan zehar zabaldu zen, artoaren iraultzak eragindako nekazaritza hazkundearen testuinguruan. Egitura horien bidez, gainera, eskualdeko landa-komunitateak itsasadarreko ekosistemak bereganatzen eta eraldatzen hasi ziren. Kanalak eta anteparak eraikitzean, hidrografia natura-la aldatu zen, ura toki jakin batzuetara bideratuz eta marea fluxuen menpe egondako zenbait eremu isolatuz. Errotak zeuden tokietan eta inguruko lursailetan, aldiz, lurra egonkortu zen, eta lehen aldiz padurak drainatzeko urratsak eman ziren, nekazaritza egiteko.

Itsasadarreko kultur paisaiaren eraldaketa bizkortu egin zen.

[24] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, JTB0308/030.

05

Paisaia berri bat: polderrak



5.1. ZER DA POLDER BAT?
5.2. POLDERRAK URDAIBAIN
5.3. DESPOLDERIZAZIOA

Atal honetan Urdaibaiko kultur paisaiaren historian berebiziko garrantzia izan duen prozesu bat aztertuko da: XVIII. eta XIX. mendeetan nagusitu zen polderren eraikuntza, hain zuzen ere.

5.1. ZER DA POLDER BAT?

Polder hitza nederlanderatik dator, eta itsasoari edo itsasadarreko eremu bati irabazitako lur zatiari egiten dio erreferentzia, gehienetan nekazaritza egiteko helburuarekin. Euskal Herrian, estuario ia guztietan eraiki izan dira polderrak, oro har Aro Moderoan, XVII. eta XIX. mendeen artean (Narbarte et al., 2022). Eremu hauek izendatzeko erabiltzen diren hitzak aldatu egiten dira toki batetik bestera, baina normalean argi egoten da jatorrizko hezegune-ekosistemarekin duten lotura. Urdaibain, *itza* izan da ohikoena, jatorrizko padurak izendatzeko erabiltzen zen berbera alegia; gaztelaniazko dokumentuetan *juncal* eta *junquera* ordainak erabiltzen dira.

POLDERRAK IZENDATZEKO ERABILTZEN DIREN HITZAK
EUSKAL HERRIKO ZENBAIT ESTUARIOTAN

HITZA	ESTUARIOAK
BARTHA	Aturri, Errobi
BASADIA	Urola
ERRIBERA	Oria, Bidasoa
ITZA	Urdaibai, Butroi, Bidasoa

Polder baten eraikuntzan hiru urrats nagusi bete behar dira. Lehenik, aukeratutako eremua dike batekin inguratu behar da, itsasgoran ura barrura sartzea oztopatzeko. Dike horiek egiteko, padurako lokatzetan pilote-lerro bat ezartzen da, eta gero lurrez estaltzen dira itsasgoraren maila baino garaiera handiagoa hartu arte. Behin hori eginda, eremua marea fluxuetatik isolatuta gelditzen da, eta sedimentu berria jasotzeari uzten dio; ondorioz, barruko lurzorua lehortu eta konpaktatu egiten da. Dike hauek izendatzeko ere, hitz desberdinak erabiltzen dira; Urdaibain, *muna* da ohikoena, baina zenbait tokitan *lubana* edo *lugana* ere jasotzen da, 'hesi' edo 'trintxera' zentzuarekin (Euskaltzaindia, 2023).

DIKEAK IZENDATZEKO ERABILTZEN DIREN HITZAK
EUSKAL HERRIKO ZENBAIT ESTUARIOTAN


HITZA	ESTUARIOAK
LEZOIA	Bidasoa
LUBAKIA	Urola
LUBANA/LUGANA	Urdaibai
MUNA	Urdaibai
MUNTOA	Oria

Bigarren urratsa barruko urak drainatzea da. Normalean, sakonera txikiko zanga-sarea irekitzen da lehortutako eremuaren barruan. Horiek kanal nagusi batera bideratzen dute soberako ura, eta handik munetara. Bertan, irekiune edo *konporta* berezi batzuk egoten dira —itsas erroten anteparak betetzeko funtzioa dutenen kontrako mekanismoa dute, hain zuzen ere. Itsasgoran, konportak itxi egiten dira, ura sartzea eragotziz eta polderra lehor mantenduz. Itsasbeheran, aldiz, kanporantz irekitzen dira, barruko urak ebakuatuz. Agiri historikoetan, batzuetan, konporta hauei *tronpa* ere deitzen zaie.

Hirugarren urratsa polder barruan gelditu den lupetza nekazaritzarako egokitzea da. Normalean, hori egiteko estrategia desberdinak erabiltzen dira: goldatzea, lurra irekitzeko eta berdintzeko; hondarra botatzea, testura hobetzeko eta lantzeko errazago egiteko; eta, sarri, etxeko hondakinak edota abereen gorotza bezalako ongarriak botatzea. Batzuetan, betelanak ere egin daitezke, maila freatikoa jaisteko. Horrela, oso lur emankorrak eskuratzen dira, lantzeko prest.




▲
Holandako konderria 1682. urtean.
Egilea: Nicolas Visscher.
Iturria: Wikimedia Commons.




▲ Polderizazio handiko eremuak Europako eskualde atlantiarretan.

Polderren eraikuntza ohiko praktika izan da Europako hainbat eskualde atlantiarretan. Ingalaterran eta Herbehereetan, adibidez, Erdi Aroaz geroztik egin izan da, eta milaka hektarea lur berri lortu dira horri esker. XVI. mendetik aurrera, ingeniari nederlandarren ezagutzak beste eskualde batzuetan ere aplikatzen hasi ziren. Garai horretakoak dira Euskal Herriko lehen egitasmoak ere: Aturrin, Baiona eta Akize arteko barthak drainatu ziren; eta Bidasoan, Hondarribia inguruko zenbait itza. Pixkanaka, hezeguneak drainatzeko egitasmoak ugaritzen joan ziren euskal kostako beste zenbait puntutan; ugariak izan ziren, bereziki, XVIII. mendean. Dena den, itzak drainatzeak ordura arteko erabilera komunalen desagerpena zekarren, eta ez zen arraroa izan tokiko komunitateen baitan gatazkak sortzea.



▲ Beemster herriko polderra (Herbehereak). Egilea: Daniel van Breen, 1658.



▲ Delft hiria polderrez inguratuta (Herbehereak). Egilea: Johan Blaeu, 1649.

5.2. POLDERRAK URDAIBAIN

Urdaibaiko kasuan ere, XVIII. mendekoak dira agirietan jasota agertzen diren lehen drainatze jarduerak, baina oso mugatuak izan ziren. Izan ere, nekazariz osatutako landa-komunitateak izaki, itzetako baliabide komunalak ezinbestekoak ziren baserrien ekonomia sostengatzeko, eta horrek luzaroan oztopatu zuen eskala handiko drainatze-egitasmorik martxan jartzea.

Gauzak horrela, XIX. mendean zehar eman zen herri lurren desamortizazioaren ondoren baino ezin izan ziren eraiki Urdaibaiko itzetan polderrak.

5.2.1. Herri-lurren desamortizazioa


Herri lurren desamortizazio edo pribatizazio prozesua ulertzeko, XVIII. mende amaiera ra jo behar da. Frantziar Iraultzaren ondoren (1789), Europa osoan Ilustrazioaren ideiak barreiatu ziren; horien artean, gizartea eta ekonomia modu arrazionalean birformulatzeko beharra, jabetza indibidualaren eta merkatu askatasunaren printzipioen arabera. Herri-lurren kudeaketa kolektiboak eta estentsiboak, noski, ez zuen tokirik eskema horren barruan.

Euskal Herrian, ideia horien harrera gatazkaz beteta egon zen. Hirietako burgesiaren zati batek begi onez ikusten zuen Iraultza; baina agintariak eta landa giroko herritar gehienak aurka lerratu ziren, tradizioaren erabateko haustura suposatzen zuelakoan. Desadostasun hori berehala gelditu zen agerian, Frantziaren eta Espainiaren arteko Konbentzio Gerran (1793-1795) nahiz Frantsestean (1808-1814). Azken gatazka horretan, Euskal Herria frantziar okupaziopean gelditu zen, eta Bizkaiko gobernadore Pierre Thouvenot jeneralak zenbait neurri liberal xedatu zituen. Hala, besteak beste, udalei herri-lurrak saltzeko baimena eman zien 1810ean, armada okupatzailearen mantenua ordaintzeko[25].

Gerra bukatuta, Fernando VII. erregeak absolutismoaren itzulera dekretatu zuen 1814an, lege liberal guztiak bertan behera utziz. Haatik, 1820an Riego jeneralaren pronuntziamenduak Hirurteko Liberalari eman zion hasiera, eta gobernu berriak herri-lurrak pribatizatzeko aukera zabaldu zuen berriro. Fernando VII.ak 1823an agintea berreskuratzean, atzera bertan behera gelditu ziren salmentak. Dena den, sistema absolutista guztiz gainbeheran zegoen ordurako, eta ondorengo hamarkadetan Estatu liberala egonkortuko zen Espainian eta Euskal Herrian.

Zalantzarik gabe, Lehen Karlistaldia (1833-1839) izan zen prozesu hori markatu zuen mugarri nagusia. Gerran zehar, Bizkaia gehiena karlisten esku gelditu zen, liberalismoaren aurrean foru tradizioaren defentsan egiten zuten indarragatik. Armadaren mantenuak eta gerraren kostuek izugarrizko kaltea eragin zioten lurraldeko ekonomiari; 1840an, udal gehie-

[25] Bizkaiko Foru Artxibategi Orokorra, AJ01611/064; AJ01611/079; AJ01611/102; AJ01611/120; AJ01611/143.



CONSULADO 0599/050 N. 55. 1

El Excmo. Senor General Thouvenot Gobernador de Vizcaya ha pasado á este Consejo Provincial con fecha de 1.° del corriente un oficio, cuyo tenor es el siguiente.

»Debiéndose cuidar de que los Pueblos de la exten-»sion del Gobierno de Vizcaya saquen la mayor utilidad »posible con sus respectivos propios, haciéndoles ren-»dir en sus enagenaciones todas aquellas cantidades de »que sean suceptibles, ó á lo menos los mayores que se »pueda; encargo á V. S. prevenga á los Pueblos de su »extension, que se dén oportunamente noticias exâctas »de las ventas que en lo succesivo intentasen hacer, ex-»presando la renta de cada finca, para que comunican-»domelas V. S. se anuncien por medio de la gazeta con »la posible anticipacion."

Y de órden del mismo Consejo lo comunico á V. S. para su inteligencia y cumplimiento.

Dios guarde á V. S. muchos años. Bilbao 7 de Mayo de 1810.

El Secretario del Consejo de Provincia del Señorio de Vizcaya.

Diego Antonio de Basaguren.

Al Consejo Municipal de

▲
Frantziar okupaziopeko Bizkaiko gobernuak udalei bidalitako zirkularra, herri lurren salmenta egiteko jarraibideak emanez. Iturria: Bizkaiko Foru Artxibategi Orokorra, CONSULADO 0599/050.

nak zorretan itota zeuden, eta horiek kitatzeko aukera ia bakarra herri-lurren salmenta zen. Gainera, Isabel II.aren erregetzan Espainia gobernatu zuten agintari liberalek horren aldeko neurriak ezarri zituzten, Mendizabal (1836-1837) eta Madoz (1854-1856) ministroek agindutako desamortizazio dekretuak kasu.

Azken Karlistaldiaren (1872-1876) ondoren, Euskal Herriko foruak bertan behera gelditu orduko, Bizkaiko udalerri gehienek saldua zuten antzinako herri-lurren parte handi bat. Jabe berriek modu pribatuan kudeatu zituzten ordutik, lurraldeko paisaian aldaketa nabarmenak eraginez —horren adibide dira, besteak beste, garai honetan hainbat tokitan nagusitu ziren konifero-plantazioak (Michel, 2006).

Urdaibai inguruko elizateen kasuan, itzak izan ziren XIX. mendean zehar saldutako herri-lur gehienak. Antzinako erabilera kolektiboen ordez, jabe berriek ordura arte hezeguneak eta padurak izandako lurretan polderrak eraikitzea hobetsi zuten, zerealak lantzeko nahiz abereentzako bazkaleku intentsibo moduan erabiltzeko. Dena den, prozesuak bere ñabardurak izan zituen elizate batetik bestera, eta ez ziren arraroak izan haren inguruan sortutako gatazkak ere.

5.2.2. Trenbidea eta Erriobarria

Urdaibaiko paisaia eraldatu zuen beste faktore garrantzitsu bat XIX. mendeko azpiegitura berriak izan ziren. 1822an, Gernikako udalak eskatuta, Juan Bautista Belauntzaran arkitektoak itsasadarraren ibilbidea zuzentzeko egitasmoa aurkeztu zuen, inguruko itzak —570 hektarea inguru— drainatu eta lantzeko aukera emango zuela azpimarratuz. Egitasmoak inguruko herrien oposizioa jaso zuen; Foruko udalak, adibidez, protesta egin zuen, herritarrek bazkaleku gisa erabiltzen zituzten itza kolektiboak desagertuko zirela argudiatuz, eta merkataritzari onurarik ekarriko ez ziola gaineratuz[26].

Hurrengo urteetako bilakaera politikoak —Lehen Karlistaldiak, bereziki— egitasmoa gauzatzea eragotzi zuen, baina ideia ez zen bertan behera gelditu. Hala jasotzen du Pascual Madoz ministro liberal nafarrak, 1845-1850 artean argitaratutako bere hiztegian:

> *MUNDAKA: Bizkaian proiektatu den kanala, Gernikako barruti judizialean. Izen bereko itsasadarrak ibar eder bat zeharkatzen du bi mendilerroren artean, eta bertan itza zingiratsu zabal bat dago, baina hori simaurra egiteko baino ez zaie balio Foruko, Muruetako, Arteagako, Busturiko eta Sukarrietako nekazariei. Zenbait saiakera izan dira lur horiek balioan jartzeko, haiek zeharkatuko lituzkeen kanal baten bidez, horrek aukera emango bailuke lurrak lantzeko eta errioa nabigagarri egiteko, gaur egun aurkitzen diren oztoporik gabe. Bizkaiko Aldundia, herrialdeko aberastasuna ugaritu nahian, kanala irekitzeko urratsak ematen hasi da, eta B.M.ren gobernuak 1827an eskaera egin zion Bilboko Itsas Armadako brigadier komandante den Ignacio Colmenaresi, egitasmoa bertatik bertara aztertu eta bere iritzia eman dezan. Lan hori eginda, eta San Fernando*

[26] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, FORUA 0008/001.

Errege Akademiako Juan Bautista Belauntzaran arkitektoak egindako azterketa xehea kontutan hartuta, txostena aurkeztu zion gobernuari, baina gaiak ez zuen aurrera egin. Geroago, Jose Bentura Agirre Loiarte euskal kapitalista aberatsak bere kabuz gauzatu nahi izan zuen egitasmo hori, baina gero uko egin zion itzen jabetzaren inguruko zailtasunak ikusita. Izan ere, argia dirudi itza horiek herri osoarenak direla; baina, inguruko herriek bazkaleku moduan erabiltzen dituztenez, haien jabetza bereganatu nahi izan zuten, eta zati batzuk partikularrei saldu ere egin zizkieten. Nolanahi ere, oraindik ere [egitasmoa] gauzatu daiteke, xede horrekin sortuko litzatekeen enpresaren onurak ezagutaraziko balira; inguruko herritarrek ere parte har lezakete, zenbait kapitalistarekin elkartuz gero.

Madoz (1845-1850).

Hala, itsasadarra egokitzeko bigarren saiakera 1864an jarri zen martxan, Espainiako Gobernuaren ekimenez. Horren emaitza izan zen Juan Orensek, Euskal Probintzietako Ingeniari Nagusiak, 1870an aurkeztu zuen egitasmoa, baina Hirugarren Karlistaldiak (1872-1876) bertan behera utzi zuen hori ere.

Hirugarren saiakera, eta behin betikoa, gerra bukatu ondoren iritsi zen, behin foruak desagertuta eta Bizkaian industrializazio prozesua bete-betean zegoela. Kasu honetan, proiektua aurrera atera zen, eta Urdaibaiko paisaiaren behin betiko eraldaketa ekarri zuen, bi elementuren inguruan ardaztuta.

Alde batetik, 1882an **Amorebieta-Gernika trenbidea** eraikitzeko proiektua aurkeztu zen Bizkaiko Gobernu Zibilean, etorkizunean Bermeoko porturaino luzatzeko aukera ere aipatuz. Hala, Bilboko zenbait enpresaburuk *Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno* izeneko enpresa sortu zuten 1885an, eta Estatuaren parte-hartzerik gabe ekin zieten lanei. 1888an Gobernuak Interes Publikoa aitortu zion trenbidea Gernikatik Sukarrietaraino luzatzeko egitasmoari, eta horri esker konpainiak hainbat itza-sail desjabetu ahal izan zituen Foruko eta Muruetako lurretan. Trenbidea 1893an inauguratu zuten (Olaizola Elordi, 2005).

Beste aldetik, itsasadarraren ibilbidea zuzentzeko lanak ere suspertu egin ziren. 1884an Espainiako Gorteek Interes Publikoa aitortu ondoren, Jose Lekerika ingeniariari egokitu zitzaion lanak diseinatzea; baina Espainiako Gobernuak eman beharreko dirulaguntza ez zen iritsi 1897 arte. Hortaz, lanak 1903 eta 1923 artean gauzatu ziren, Gabriel Toña enpresaburu gernikarrak kudeatuta. Zailtasunak zailtasun —itzetako lursailen desjabetzeari lotuta, batik bat—, 4 km inguruko ubidea zabaldu zen, **Erriobarria** delakoa, Foruko eta Muruetako itzetan zehar. Aldiz, egitasmoaren bigarren fasea, itsasadarraren bokaleraino, egin gabe gelditu zen (Arana Martija, 2023).



5.2.3. Itza berrien kudeaketa

Arestian ikusi bezala, herri-lurren desamortizazioa eta azpiegitura berrien eraikuntza izan ziren Urdaibai inguruko itzetan polderrak sortzea erraztu zuten faktoreak, paisaia berri bati sorrera emanez.

Paisaia horren egiturak antzeko ezaugarriak izan zituen toki guztietan. Itzak munaz inguratuta egoten ziren, itsasgoran ura sartzea eragozteko. Munak egurrezko posteen gainean pilatutako lurrez egiten ziren, batzuetan itsasalderantz harrizko hormaz indartuta. Haien mantenua auzolanean egiten zen, itzan parte zuten jabeen artean antolatuta nahiz udalak deituta. Lan egiteko aukerarik ez zuenak pertsona bat bidali behar zuen bere ordez. Munak indartzeko, itzatik bertatik edo inguruko paduretatik zotalak ateratzen ziren, lehortzen eta gogortzen utzi ondoren munaren goiko partean plantatzeko. Gero, muna egonkortzeko zuhaixkak landatzen ziren sarri; Urdaibain, tamarizak edo milazkak (*Tamarix gallica*) ziren ohikoenak.

Itzak xede desberdinetarako erabiltzen ziren. Nekazaritzaren arloan, zereala lantzeko soloak ziren nagusi. Bertan garia, artoa eta alpapa bezalako bazka-landareak txandakatzen ziren. Arraroagoak ziren ortuak eta frutarbola-sailak, orokorrean itsasadarreko alde babestuetan, baserrien inguruan kokatuak. Abeltzaintzaren arloan, berriz, bi erabilera nagusitzen ziren. Alde batetik, ihidiak lantzen ziren, ihiak ebaki eta baserrietan abereen azpigarri bezala erabiltzeko. Horrela egiten zen gero soloetan botatzen zen ongarria. Beste aldetik, belardiak ere lantzen ziren, abereak zuzenean bertan bazkatzeko nahiz belarra moztu eta sikatzeko —neguan ganadua elikatzeko erabiltzen zen hori.

Paisaia horren aztarna materialak —munak, drainatze-sareak, konportak— nabarmenak dira oraindik itsasadarraren inguruko bost elizateetan, hurrengo ataletan jasoko den moduan. Dena den, aipatu beharra dago, baita ere, azken hamarkadetan paisaia honek izan duen atzerakada, hezeguneen leheneratzeari lotuta.

◀ Erriobarria Enderikako itzetan zehar (Kortezubi).



5.3. DESPOLDERIZAZIOA

Azken hamarkadetan, paisaia bereizgarri honi lotutako elementuak azkar higatu dira, hainbat arrazoi direla bide.

Baserriko bizimoduari lotutako nekazaritza tradizionala desagertzen joan da XX. mendearen erditik aurrera. Gautegiz Arteagako Ozollo baserrian, adibidez, 1956. urtean kokatzen dute herrian egin zen azken gari-jotzea; artoak gehixeago iraun zuen, baina hori ere ia desagertuta dago gaur egun. Gauza bera gertatu da belardiekin. Nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen diren ustiategi kopuruak behera egin du, eta gelditzen direnek merkatura bideratutako produktu jakin batzuetan espezializatu dute beren ekoizpena. Antzinako gari eta arto soloak ia erabat desagertu dira, eta abereak bazkatzeko belardiak han-hemenka baino ez dira gelditzen. Toki askotan, itzetako drainatze sistemak mantenurik gabe gelditzean, zangak lohiz betetzen eta munak hausten joan dira pixkanaka. Horren guztiaren ondorioz, itsasgoran urak sartzen hasi dira, jatorrizko padurak leheneratuz.

Joera honen alde egin dute, gainera, Biosferaren Erreserbaren eta Babes Bereziko Eremuaren izendapenek, haien abaroan itsasadarreko hezeguneak berreskuratzeko egitasmo handiak jarri baitira martxan.


Gaur egun, polder-paisaiak Urdaibaiko zonalde gutxi batzuetara mugatuta gelditzen dira. Horietako batzuk egoera onean kontserbatzen dituzte munak eta drainatze-zanga sareak, eta nekazaritzarako edo abeltzaintzarako erabiltzen dira oraindik ere. Dena den, gehienak abandonatuta daude, eta paduren leheneratze prozesu betean murgilduta daude. Bertan, munak hautsita ageri dira eta, itsasgoran ura barrura sartzen denez, drainatze-sareak lausotu eta kanal berriak eratu ditu. Prozesu horren azken estadioan, guztiz leheneratutako padurak aurkitzen ditugu; gaur egun, hori da itsasadarraren inguruan nagusitzen den lur-estaldura, eta bertan oso zaila da antzinako polderren aztarna materialak aurkitzea. Hala ere, iraganeko paisaia horren memoria presente dago oraindik tokiko biztanleen artean, eta xehetasun handiz berreraiki daiteke.

Hurrengo ataletan, itsasadarraren inguruko bost elizateak aztertuko dira banan-banan, kasu bakoitzean itzen drainatze-prozesua nolakoa izan zen eta zein aztarna material utzi dituen aztertuz.





◀ Itsasadarraren ikuspegi orokorra 1969an. Itza guztiak landuta ageri dira. Iturria: Euskadiko Artxibo Historikoa.

Gautegiz Arteaga. Leheneratutako padurak Urdaibai Bird Center inguruan. ▶


0
1 km

◀ Gaur egungo lur-estaldurak Urdaibaiko itsasadarrean.





06

Busturia




6.1. DRAINATZE PROZESUA
6.2. KATASTRO ZAHARRA
6.3. ITZAK GAUR EGUN

Urdaibaiko elizateen artean, Busturia da itsasadarraren posizio periferikoena hartzen duena. 131 hektarea hezegune ditu bere udal lurraldearen hego-ekialdean, Axpeko eta Mapeko erreken bokaleek mugatuta. Padura baxuak eta marea arteko lautadak dira nagusi, nahiz eta iparralderantz, apurka, hareatzak nagusitzen doazen.

6.1. DRAINATZE PROZESUA

XVIII. mendetik, iturri dokumentalek giza esku-hartze gero eta handiagoa islatzen dute espazio hauetan. Horren adibide dira 1712an Madalena Sagarminagak bere izeneko etxe ondoan Domingo Kaltzadari alokatu zizkion itza-sailak[27]; edo handik hurbil kokatutako itsas errota, Bekoerrota[28].

Itzen drainatze masiboa XIX. mendearen lehen erdian gertatu zen, inguruko elizateetan bezala, herri-lurren pribatizazioari lotuta. Udalak 1829an hartu zuen herri-lurrak saltzeko erabakia. Urtebete geroago, Antonio Zabala perituari enkargatu zioten Munaurratu izeneko parajea neurtzea; 2003 estadio hartzen zituela ebatzi ondoren, Antonio Ugalderi saldu zioten 681 erreal eta 19 marabedi-ren trukean[29]. Toponimoak ez du egungo ordainik Busturian, *muna* hitzaren presentziak iradokitzen duenez, itzetan kokatutako lursail bat izan zitekeen, edo mendian hesiz itxitako eremu bat bestela.



Munaurratu (Busturia). Antonio Agirrek 1830ean egindako neurketaren krokisa. Iturria: Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, BUSTURIA 0062/015/013. ▶

[27] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0030/0185.

[28] Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoa, N0455/0083; N0455/0084; BUSTURIA 0068/008/017; BUSTURIA 0068/008/017; JTB0956/004, N0056/0003; N0056/0059.

[29] Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa, BUSTURIA 0062/015/013.

Udalak beste bi itza sorta saldu zituen Lehen Karlistaldia bukatzean: 1840ean[30] eta 1855ean[31], hurrenez hurren. Prozesua hainbat hamarkadaz luzatu zela dirudi, ahozko iturrien bidez ere jaso baita oraindik 1917an egiten zirela itza-salmentak Busturian (Paia, 2011).




▲
Busturiko itzetan arto soloak lantzen. Egilea: Anselmo Guinea (1893). Iturria: Bilboko Arte Ederren Museoa.

[30] Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa, BUSTURIA 0050/023.
[31] Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa, BUSTURIA 0062/015/035.

6.2. KATASTRO ZAHARRA

Busturiko katastro zaharrean (1949) xehetasun handiz irudikatuta azaltzen dira elizateko itzak. Mendebaldean Gernika-Sukarrieta trenbideak mugatzen zituen; ekialdean, berriz, itsasadarraren bokaleak. Inguru horretan itsasoaren eragina handia denez, itza guztien perimetroa muna handi batez inguratuta zegoen; eremu horren barruan, itsasadarrarekiko perpendikularrean antolatutako hainbat lursail luzexka bereizten dira, drainatze-zangen bidez banatuta. Lursail bakoitza jabe batena zen, baina haren baitan funtzio desberdinetako azpi-sailak ere bereizten ziren.

Erabilerari dagokionez, Busturiko itzen zatirik handiena (%77) abeltzaintzarako erabiltzen zen: horien erdia, gutxi gora-behera, larreak ziren, abereak bertan bazkatzeko; eta beste erdia, berriz, belardiak, belarra moztu eta sikatu ondoren neguko elikagai moduan erabiltzeko. Itzen beste %20 zerealak lantzeko soloek osatzen zuten, nahiko ehuneko handia Urdaibaiko beste elizate batzuekin alderatuta. Itzen %2 inguru abandonatuta eta sasiz estalita zegoen; landu gabeko espazioa hutsala zen.



◄ Busturiko itzen erabilera, katastro zaharraren arabera.

Busturiko itzen kokapena, 1949ko katastroaren arabera. ►


Axpeko itzak
San Kristobaleko
itzak

Dokumentu horren arabera, Busturiko itzak bi multzo handitan banatzen ziren:

- ***Axpeko itzak.*** Izen bereko auzoaren oinetan kokatuta zeuden, Axpeko errekaren bokale inguruan. Inguru horretan Bekoerrota itsas errota zegoen XVIII. mendeaz geroztik. Itzak XIX. mende erdialdean drainatu ziren, udalak herri-lurrak saldu ondoren. Mende erdi beranduago, azalera osoaren ia erdia (%47) bazkaleku moduan erabiltzen zen, eta beste %30 ebakitzeko belardiek osatzen zuten. Dena den, zerealak lantzeko soloak ere ugariak ziren (%23).

- ***San Kristobaleko itzak.*** Izen bereko auzoaren aurrean kokatuta zeuden, Mapeko errekaren bokale inguruan. Kasu honetan ere, XIX. mende erdialdean drainatutako lurrak ziren. 1949an, abeltzaintza-erabilerak ziren nagusi: bazkalekuak (%39) eta ebakitzeko belardiak (%39). Soloek %19 hartzen zuten, batez ere itsasadarretik urrun kokatutako inguruetan.



BUSTURIKO ITZAK 1949KO KATASTROAREN ARABERA

POL.	SAILA	TOPONIMOA	JABEA	ERABILERA	MOTA	AZALERA (ha)
7	1a	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Soloa	4	0,0825
7	1b	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Soloa	4	0,1837
7	1c	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Soloa	4	0,3075
7	1d	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Larrea	1	0,7425
7	1e	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Belardia	3	0,525
7	1f	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Larrea	1	0,6638
7	2a	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Soloa	4	0,105
7	2b	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Larrea	1	0,015
7	2c	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Soloa	4	0,0863
7	2d	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Larrea	3	0,09
7	2e	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Soloa	4	0,0825
7	2f	Axpeko Itzak	Alejandro Santamaria	Belardia	1	0,1462
7	3a	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Soloa	4	0,1087
7	3b	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Larrea	1	0,0525
7	3c	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Soloa	4	0,0375
7	3d	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Belardia	3	0,0225
7	3e	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Larrea	1	0,105
7	3f	Axpeko Itzak	Eustasia eta Maria Apraiz	Soloa	4	0,03
7	4a	Axpeko Itzak	Felipa Aralucea Basabe	Larrea	1	0,1725
7	4b	Axpeko Itzak	Felipa Aralucea Basabe	Belardia	3	0,2663
7	5a	Axpeko Itzak	Santiago Iturbe Elorrio	Soloa	4	0,045
7	5b	Axpeko Itzak	Santiago Iturbe Elorrio	Belardia	3	0,1875
7	5c	Axpeko Itzak	Santiago Iturbe Elorrio	Soloa	4	0,1425
7	5d	Axpeko Itzak	Santiago Iturbe Elorrio	Larrea	1	0,45
7	6a	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Belardia	3	0,165
7	6b	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Larrea	1	0,0487
7	6c	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Soloa	4	0,1425
7	6d	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Belardia	3	0,0412
7	6e	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Soloa	4	0,15
7	6f	Axpeko Itzak	Fernando Gondra Lazurtegui	Larrea	1	0,12
7	7a	Axpeko Itzak	Francisco Orbe	Belardia	3	0,075
7	7b	Axpeko Itzak	Francisco Orbe	Belardia	3	0,0412
7	7c	Axpeko Itzak	Francisco Orbe	Belardia	3	0,015
7	7d	Axpeko Itzak	Francisco Orbe	Larrea	1	0,0525
7	8a	Axpeko Itzak	Marcelino Pedernales	Belardia	3	0,075
7	8b	Axpeko Itzak	Marcelino Pedernales	Larrea	1	0,075
7	8c	Axpeko Itzak	Marcelino Pedernales	Belardia	3	0,0675
7	9a	Axpeko Itzak	Federico Hormaechea	Larrea	1	0,1275
7	9b	Axpeko Itzak	Federico Hormaechea	Belardia	3	0,0975
7	10a	Axpeko Itzak	Anastasia Uriarte Cortazar	Soloa	4	0,15
7	10b	Axpeko Itzak	Anastasia Uriarte Cortazar	Belardia	3	0,0975
7	11	Axpeko Itzak	Salvador Castillo	Larrea	1	0,3

POL.	SAILA	TOPONIMOA	JABEA	ERABILERA	MOTA	AZALERA (ha)
7	12	Axpeko Itzak	Eduardo Echaniz Apraiz	Soloa	4	0,3456
7	13	Axpeko Itzak	León Basterrechea	Belardia	3	0,285
7	14	Axpeko Itzak	Juan Ojinaga Larragen	Larrea	1	0,24
7	15a	Axpeko Itzak	José Telleria	Soloa	4	0,15
7	15b	Axpeko Itzak	José Telleria	Larrea	1	0,1675
7	16a	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Larrea	1	0,0375
7	16b	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Belardia	3	0,075
7	16c	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Larrea	1	0,09
7	16d	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Belardia	3	0,0225
7	16e	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Larrea	1	0,0975
7	16f	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Belardia	3	0,0525
7	16g	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Larrea	1	0,045
7	16h	Axpeko Itzak	Felix Barañano eta anaiak	Belardia	3	0,0808
7	17a	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Soloa	4	0,2362
7	17b	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Larrea	1	0,0487
7	17c	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Soloa	4	0,03
7	17d	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Soloa	4	0,0675
7	17e	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Belardia	3	0,78
7	17f	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Soloa	4	0,1013
7	17g	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Larrea	1	0,03
7	17h	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Belardia	3	0,0863
7	17i	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Larrea	1	0,0525
7	17j	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Soloa	4	0,5475
7	17k	Axpeko Itzak	Manuel Barandica Llano	Larrea	1	0,105
7	18a	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Larrea	1	0,075
7	18b	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Soloa	4	0,09
7	18c	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Belardia	3	0,1388
7	18d	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Soloa	4	0,1725
7	18e	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Larrea	1	0,0263
7	18f	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Soloa	4	0,06
7	18g	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Larrea	1	0,0225
7	18h	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Soloa	4	0,105
7	18i	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Larrea	1	0,0015
7	18j	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Belardia	3	0,075
7	19	Axpeko Itzak	Julian Orbe Zuazua	Larrea	1	0,0675
7	20	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Belardia	2	0,0375
7	21	Axpeko Itzak	Tomás Iturbe Elorrio	Soloa	3	0,0225
7	22a	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Larrea	1	0,1425
7	22b	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Belardia	3	0,0325
7	22c	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Larrea	1	0,0525
7	23	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Larrea	1	0,2962
7	24a	Axpeko Itzak	Ignacio Ugalde	Belardia	3	0,1088
7	24b	Axpeko Itzak	Ignacio Ugalde	Larrea	1	0,105

POL.	SAILA	TOPONIMOA	JABEA	ERABILERA	MOTA	AZALERA (ha)
7	25a	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Belardia	3	0,12
7	25b	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Soloa	1	0,0825
7	26a	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0975
7	26b	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Belardia	3	0,03
7	26c	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0675
7	26d	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Belardia	3	0,06
7	26e	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0375
7	26f	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Belardia	3	0,0525
7	26g	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,105
7	27a	Axpeko Itzak	J.A. Arguinzonizen anaiak	Larrea	1	0,075
7	27b	Axpeko Itzak	J.A. Arguinzonizen anaiak	Belardia	3	0,0675
7	27c	Axpeko Itzak	J.A. Arguinzonizen anaiak	Larrea	1	0,03
7	27d	Axpeko Itzak	J.A. Arguinzonizen anaiak	Belardia	3	0,225
7	27e	Axpeko Itzak	J.A. Arguinzonizen anaiak	Larrea	1	0,15
7	28a	Axpeko Itzak	Iturria Zabala anaiak	Larrea	1	0,2022
7	28b	Axpeko Itzak	Iturria Zabala anaiak	Belardia	3	0,0525
7	28c	Axpeko Itzak	Iturria Zabala anaiak	Larrea	1	0,06
7	28d	Axpeko Itzak	Iturria Zabala anaiak	Belardia	3	0,2175
7	28e	Axpeko Itzak	Iturria Zabala anaiak	Larrea	1	0,0525
7	29a	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Larrea	1	0,0225
7	29b	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Zereala	4	0,1125
7	29c	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Belardia	3	0,1575
7	29d	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Soloa	4	0,24
7	29e	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Larrea	1	0,0225
7	30	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Larrea	1	0,4312
7	31a	Axpeko Itzak	Antonio Bilbao	Larrea	1	0,3676
7	31b	Axpeko Itzak	Antonio Bilbao	Belardia	3	0,0675
7	32a	Axpeko Itzak	Claudio Izaguirre	Belardia	3	0,165
7	32b	Axpeko Itzak	Claudio Izaguirre	Larrea	1	0,39
7	33a	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Larrea	1	0,1125
7	33b	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Belardia	3	0,2025
7	34a	Axpeko Itzak	Luis Berrueta	Soloa	4	0,0975
7	34b	Axpeko Itzak	Luis Berrueta	Belardia	3	0,105
7	34c	Axpeko Itzak	Luis Berrueta	Larrea	1	0,7275
7	35a	Axpeko Itzak	Miguel Bilbao Mendiola	Belardia	3	0,15
7	35b	Axpeko Itzak	Miguel Bilbao Mendiola	Soloa	4	0,1275
7	18j	Axpeko Itzak	Mª Nieves Echevarria	Belardia	3	0,075
7	19	Axpeko Itzak	Julian Orbe Zuazua	Larrea	1	0,0675
7	20	Axpeko Itzak	Fundación Arrotegui	Belardia	2	0,0375
7	21	Axpeko Itzak	Tomás Iturbe Elorrio	Soloa	3	0,0225
7	22a	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Larrea	1	0,1425
7	22b	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Belardia	3	0,0325
7	22c	Axpeko Itzak	Francisco Arrien	Larrea	1	0,0525

POL.	SAILA	TOPONIMOA	JABEA	ERABILERA	MOTA	AZALERA (ha)
7	23	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Larrea	1	0,2962
7	24a	Axpeko Itzak	Ignacio Ugalde	Belardia	3	0,1088
7	24b	Axpeko Itzak	Ignacio Ugalde	Larrea	1	0,105
7	25a	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Belardia	3	0,12
7	25b	Axpeko Itzak	Ciriaco Lezamiz	Soloa	1	0,0825
7	26a	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0975
7	26b	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Belardia	3	0,03
7	26c	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0675
7	26d	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Belardia	3	0,06
7	26e	Axpeko Itzak	Juana Calzada Basabe	Larrea	1	0,0375
